




2010eko Gabonak



Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxebako aseguruak
- Kaxeeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizi-aseguruak...

LUIS CAR

autobusak

EGUBERRI ON!



- Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako mikrobusak.
- 55 plazako autokarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



ETXARRI DIGITAL

DIGITAL

943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA

KIOSKO DIGITALA



**Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu,
lagunarte ederrean!**



ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA



Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
MARKOAK JARTZEKO TAILERRA



AURKIBIDEA

4-7 Garai bateko Gabonetako menua

8-13 Lasarteoriatarrak 2010ean

- Agus Mujika
- Alejandro Romo
- Koru Goikoetxea
- Milagros Etxaniz
- Elias Goikouria
- Santos Uribe
- Miriam Infante

15 Iñigo Artolaren altxorrak

16-19 Joxe Miel Bereziartua
angulero, garraiolari eta sasi medikuarekin
solasean

20-21 Herriko presoen egoera eta ekimenak

22 Asteko albisteak

24-25 San Tomas feria

27 Euskarazko produktuen katalogoa

28-29 Agenda

30 Zorion agurrak



Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Bisigua jaten zen garai bateko gabonetan

■ Aza-olioak ala zurrurutuna jaten zen aurretik, eta ondoren konpota ala turroi pusketaren bat

■ Orduan ere gabon gaua, eguberria, gabon zaharra, urte berria eta errege eguna ospatzen ziren

Santo Tomaseta urtero taloak egiten dituztelako ezagunak dira Lasarte-Orian. Garai batean gabonetan zer jaten zen jakin nahi genuen eta beraingana jo genuen. Lau emakumeetatik bakarra da lasarteoriatarra, Goiegiko Pepi Arsuaga, Aginagako Begoña Aranzadi, Añorgako Joxepi Garmendia eta Albisturko Mariangeles Ibarguren, laukotearekin elkartu eta umore onean kontatu zizkiguten euren etxeetako ohiturak. Etxe eta baserri bakoitzean desberdin jaten bazen ere, ondorio batzuek atera ditugu.

Jon ALTUNA

Gabonetako otorduetan erregea bisigua zen. Beheko suan, txapa gainean edo labean erreta jaten zen. Aurretik, zurrurutuna

(baratxuri zopa, bakailao eta piper txorizeroekin), olio-aza,... eta ondoren ia etxe gehienetan konpota jaten zen. Eta turroi pusketaren bat, mazapanak edota fruitu lehorrak ere izaten ziren.

Lau emakumeak baserrikoak edo baserri girokoak dira. Aginako Begoña Aranzadi izan da hiztunenetarikoa. Bera Oria ibai bazterreko etxe batekoa da, baina arrantza egitearekin batera baratza eta behiren bat izaten zutenaz, baserri girokoa dela esan daiteke. Berak bixigua eta zurrurutuna ditu gogoan. Zurrurutuna bere amak nola presta-

tzen zuen kontatu digu, "Baratxuri zoparekin egiten zuen nire amak, gero bakailaoa gehitzen zion, patata eta piperra ere bai, eta sutan egosten eduki. Oso goxoa zen". Oraindik ere gustura jaten du. Bestela aza edo azalorea ere jaten ziren. Olio-azak ez du ezer berezirik, "ur irakinean aza bota, egosi, ura kendu eta olio erre bota. Besterik ez, eta hura, zuri zuria, fuate batean ateratzen zen".

Begoña Aranzadik halako batean zera bota du, "aza egunero edo sarritan janez gero, gripe edo katarrorik ez duzu harrapatzen" eta beste hiruak barrezka jarri ditu. "Denok parra egin duzue, bane-kien egingo zenutela, baina nik radioan aditu



M. Berasategi Kafeak

EGUBERRI JA!
ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE ZAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...



KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA



“ Gabonetako otorduetan erregea bisigua zen. Aurretik, olio-azak edo zurrukutuna, eta ondoren konpota

“ Txerri bat edo bi ere ia etxe guztietan hiltzen ziren: eta orduan ez zegoen kolesterolik

nuen". Mariangeles Iburgurenk arrazoia eman dio "aste hone-tan esan du doktore batek, aza, brokoli eta azalorea jan behar direla".

Arrain zopa jateko ohitura geroagokoa dela uste du Joxepi Garmendiak eta orduan ez zela hasteko pikatzeko, esparrago, marisko eta antzekorik izaten. "Etxe batzuetan jaten omen zuten, baina gurean ez genuen ezagutu".

Argi dago duela 50-60 urte apalagoak zirela ospakizunak, baita gabonetan ere. Pepi Arsuagak gogoratu duenez, "gure gaztaroan gerraostea zen, gosea zegoen eta janari horiek ez ziren. Garai hartan ez zegoen generorik, ez zegoen dirurik, ez zegoen ezer".



Orain, beste era bateko gabeziak daude, Kantauri itsasoan ia bisiguri ez dago. Aldiz, "bisigua jatea nahiko normala zen orduan, igandetan edo, sarri jaten zen" adierazi digu Joxepi Garmendiak. Pepi Arsuagak ere aitortzen du "fama bisiguak zuela".

Lasarte-Oria eta Aginagan gabon guetan angulak ere jaten zirela gogoratzen dute. Eta eguberrian bazkaltzeko oilaskoa edo arkumea. "Oilaskoa edozein garaitan ez zen jaten, egun seinatueta baizik. Oilasko eta arrautzak ahal bazen saldu egiten ziren "gogoratzen du Garmendiak. Ez omen zuten beti arrautza frijitu bana ere jaten, egun bereziren batean soilik. "Bakailaoa jaten zen, ia egunero, orain luxuzkoa bihurtu bada ere".

Kapritxoaren gosea

Dena den, baserrietan gosarik ez zuten pasa, jatekoa bazen, baina gauza berezirik ez, baba-rrunak urdiairekin bazkaltzeko, porru patata edo baratxuri sopa afaltzeko, bakailaoa patatekin, beste arrainak ere asko jaten omen ziren, antxoak, katu arrai-na,... udazkenean gaztaina eta mizpirak,... Gaztainak danbolin-ean erretzen ziren. "Gaztaina garaian egunero jaten genituen" esan digu Joxepi Garmendiak. "Gosea? Kapritxoaren gosea izaten zen: txokolate, gailata,... " borobildu du.

Gabonetako otorduen postrean normalean fruitu lehorrekin egindako konpota jaten zen eta Pepi Arsuagaren ustez "gaur oraindik eusten zaio ohitura horri". "Eta eguberrian gure etxean arroz esnea jaten zen" zehaztu du Joxepik. Mariangeles Iburgurenk gogoratzen du xes-

toren batean jartzen zirela piku lehor, turroi eta abar gauean jateko. Turroia probatzeko adina behintzat bai, "orain baino lodiagoa zen". Mazapanak jateko ohitura zen erregetan.

Oiloa eta kapoiak

Gabonetan oilo zaharren batekin salda egiten zela ere gogoan dute, eta oilo hori gisatua jaten zela ilarrekin. "Arrautza asko egindako oiloa bazen akabatu egiten zen egun hauetarako" esan digu Begoña Aranzadik.

Kapoiak ere izaten zituzten baserrietan, Iburgurenk oroitzen duenez. Errenteroak izanda, nagusiari kapoi pare bat entregatu behar izaten zitzaizkien gabonetan, baina batzuek harrak ateratzen ziren, eta bi baino gehiago beti jartzen zituzten bada ezpada, harrak lehorxeagoak ateratzen zirenez etxerako izaten ziren. Kapoiak gabonetan edo erregetan jaten ziren.

Osasungarriagoa lehen

Dena den, Joxepi Garmendiak argi du lehengo jakiak sanoagoak zirela, orduko eta oraingo hegaztiak ez direla berdinak. "Oilaskoak edota kapoiak ez ziren orain bezain azkar hazten, orduan ia urte osoan izaten ziren hazten".

Txerri bat edo bi ere ia etxe guztietan hiltzen ziren: "eta orduan ez zegoen kolesterolik" diote barrezka. "Gutxi jaten zen egunean eta". Solomoak eta txorixoa koipetan gordetzen ziren urte guztirako. "Orduan bai onak! Dena zen sanoagoa orduan, txerriek ezkurra jaten zuten, orain igual arrainaren irinekin hazten dituzte, konpuesto zikin horrekin. Ez da berdina" salatu dute emakumeek.

Beste era batera, baina orain dela 50 bat urte ere gabon gaua, eguberri eguna, gabon zahar, urte berri eta errege eguna ospatzen ziren eta erregetan opariak izaten zituztela gogoan dute, "eskolako gauzak, barruko arropa, kamiseta,... baina beti mazapan edota piku lehor batzuekin batera, eta boligrafoak hasi zirenean boligrafoen batekin bate-ra". Aurretik arkatzak, arbela eta luma-tinta erabili ohi zuten. "Eta arropak beti tintatz beteak". •

Burgor Tools, S.L.   
Eguberri on!
San Marcial plaza 1, behea • Tel.: 943 364070
Faxa: 943 363333 • burgor@burgor.com

ARROPADENDA ETXAKO ARROPARIK

Eguberri on!
Nagusia 44 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 245760

Gabirondo ALTZARIAK

Eguberri zoriontsuak opa dizuegu!
Jaizkibel plaza 2-14 • Tel.: 943 364007 • LASARTE-ORIA

M^L MARIA LUISA ILEAPAINDEGI MIXTOA

Eguberri on!
Pablo Mutiozabal 9 behea
Tel.: 943 370980

ZUMABURU

Eguberri on!

ZUMABURU kalea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 605 706029 **ONETAKOEN KONPONKETA**


ALTZARIAK ONAK ETA MERKEAK
Eguberri zoriontsuak izan!

Oria etorbidea 3
Brunet polig., 42. pab.
Tel./faxa: 943 360496
LASARTE-ORIA

Juan Mari KARATEGI-URDAITEGI

Ondo pasa Gabon jaietan!

Jaizkibel plaza 11 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

Denetarik, gabon gaueko menuan

Garai batean, duela 50 urte, gabonetan jaten ziren aza, zurrurutuna, bisigu, arkume, oilasko eta abarren orde, gaur egun zer jaten den ere jakin nahi genuen eta aurreko lau emakumeengana jo dugu berriro. Santo Tomas egunean taloak egin zituzten Pepi

Arsuaga, Begoña Aranzadi, Joxepi Garmendia eta Mariangeles Iburguren-ek kontatu digute zer jaten duten gabon gauean. Etxe guztietan ez da berdina jaten noski, baina lau etxe hauek jaten diren jaki asko jango dira herriko beste etxe askotan ere.



Begoña Aranzadi.- "Hasteko, pikatzeko txaka, izokina, pate, urdaiazpikoa,... Arrain zopa, kokotxak eta solomilloa. Bukatzeko fruta mazedonia eta turroiak".

Gaur egun ia etxe guztietan urdaiazpiko, foie eta bestelakoekin hasten dira gabonetako otorduak. Eta egunotan, gainera, pikatzeko dendan dauden urdaiazpiko eta foie onenak jartzen dira.

Ondoren, lehen bixigua jaten zen bezala orain beste arrain batzuek erretzen dira, erreboiloa esaterako, baina kokotxak eta txipiroiak ere badute lekua menuan. Postrean konpota jaten segitzen da, etxeko tartak ere egiten dira eta turroiak ez dira etxe batean ere faltako



Mariangeles Iburguren.- "Hasteko pikatzekoak, urdaiazpiko, pate,... Ondoren onddoen nahaskia eta txuletak. Bukatzeko konpota, pikua eta turroiak".



Joxepi Garmendia.- "Hasteko foie sagar saltsarekin, urdaiazpikoa eta langostinoak plantxan, ondoren txipiroiak eta bukatzeko etxean egindakoak petit suisse-ak eta turroiak".



Pepi Arsuaga.- "Hasteko pikatzekoak, urdaiazpikoa,... Gero, foie eta barazki salteatua, erreboiloa eta txuletak. Bukatzeko almendrak egindako tartaren bat, izozkia eta turroiak".

A. Arregi

eraikuntzako materiala

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ERAKUSKETA BILTEGI NAGUSIA

Goikale 2 Oria etorbidea 6

Tel./Faxa: 943 366473

943 365947 943 370998

EGUBERRI ON !

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorpuzteko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea 1/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Eguberrietako errezeta zaharrak

Lasarte-Oriako amonek kontatu digutenez, gabonetan ohikoa zen, olio-azak edota zurrurutuna jatea hasteko, ondoren bisigua erreta eta postrean sagar eta udareez gain, mertxika lehortuak, arapasak eta mahaspasak zituen konpota.

Zurrurutuna

Zurrurutuna egiteko modu bat baino gehiago aurkitu ditugu eta gutxi gorabehera lau lagunentzako bi errezetak jarriko dizkizuegu:

Osagaiak, 200 gramo bakailao gazi, hezur eta azalik gabe, "zopako" ogi bat, bi baxoerdi oliba olio, baratxuri buru eder bat, sei piper txorizero, sei koi-larakada tomate saltsa, litro laurden bat ur, litro laurden bat arrain salda, pipermin erdia (bizia) eta lau arrautza.

Bakailaoa gezatzeko, jarri txino edo iragazgailuan eta eragin iturriko ur hotzetan. Papurtu bertan. Xukatu ongi (kazolan, oliotan, su-festak egin ez ditzan).

Arrain salda egiteko, arrain zuriaren buru eta hezurrak


egosi mantso-mantso azenario bat eta porruaren berdearekin; hoztu aurretik iragazi eta, nahi baduzu, izoztu plaka mehetan, behar duzunean pusketa hautsi eta erabiltzeko.

Beratu txorizeroak ur epeletan, ordubetez edo. Zabaldu eta, labana txiki batekin igurtziz, jaso mamia barrualdetik. Erantsi mami hori tomate saltsari eta gorde.

Lurrezko kazolan, erregosi baratxuriak osorik su motelean. Gorritzen hasi aurretik, atera bertatik. Erantsi orduan bakailaoa eta pipermina. Eragin kazolari, saltsa loditzeko.

Txorizero eta tomatez egin-dako saltsa eta xerra mehetan ebakitako ogia erregosi, xuabexuabe.

Erantsi ura eta salda. Egosi



emeki-emeki, ordu eta erdiz, tarteka bitsaderarekin ogia zapatuz, deseginez. Crema lodia lodia geratuko da.

Zerbitzatu baino bost minutu lehenago, erantsi arrautza bana laguneko: zurrurutunean eskalfatua (horretarako, egin txuloa, ipini bertan arrautza eta

estali zopaz eta kazola tapaz) edo, bestela, sardexkarekin irabiatu eta ongi-ongi nahasia.

Bigarren errezeta

Osagaiak, 250 g. bakailao (gezatu eta papurtua), zortzi baratxuri-atal, kipula bat, piper berde erdia, hiru piper txorize-

ro, zopako ogi erdia, litro bat haragi salda, litro erdi ur eta oliba.

Lapiko batean 5-6 olio koi-larakada sutan jarriko ditugu. Zuritutako baratxuri-atalak lapikoan jarri eta baita txikitutako kipula eta piper berdea. Gorrituta daudenean, bakailaoa eta piper txorizeroen mamia gehituko ditugu.

Dena apur bat goxatzen utzi eta gero, zopako ogia botako dugu, aldeaz aurretik txikituta noski. Azkenik, haragi salda eta ura bota gehituko ditugu, eta su motelean irakiten utziko dugu 25-30 minutuan. Zurrurutuna zopontzi batean zerbitzatuko dugu.

Goizeko ordu txikitetan lagun artean jateko ere paregabea dela diote.

Azolia

Duela hamarkada batzuek, Euskal Herriko Eguberrietan, azolia jaten zen. Beste toki batzuetan olio-azak deitzen diote plater honi edo aza baratxuri frijituekin; eta horixe besterik ez da, aza egosiari gainetik baratxuriek erretako oliba gehitzea.


Guk Lasarte-Oriako emakume baten errezeta aurkitu

dugu. Jadanik botata dagoen Atsotakari Berri baserriko Mari Tere Larrañaga emandako errezeta hau, bere amona Anaren-gandik ikasia da: Aza ongi garbitu, eta, ongi txikitutakoan, ur hotzetan sartzen da; gatz pitin bat eta olio gordin pixka bat erantsi, eta egosi egiten da. Ahal zenean, urdaiazpikoaren hezur zati bat botatzen zitzaion egosteko. Aza ongi egositako-

an, bitsadera batekin atera eta erretitu batean ipintzen da, apur bat zabaldua, eta olio beroa botatzen zaio, olio horretan baratxuri zati batzuk frijitu ondoren (zenbat eta hobea oliba, orduan eta gozoagoa izango da platera), eta mahaira ateratzen da.

Azaren kanpoko hostoak ez ziren erabiltzen eta txerriei ematen zitzaizkien.





SUGATE

SUKALDEAK

FORMA
La compra inteligente

7 GARANTIA
ANNUA WARRANTY

12
vegas

Hasi informazioa gurekin

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

EGUBERRI ON!



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net



Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Inguruko erakusketarik onena!

Betiko zerbitzu gure aholkularitza onenarekin

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Lasarte Oriatarak 2010ean

Agus Mujika, *Takolo* / Irakasle-dinamizatzaile...

Ttakun Saria eskuratu zuen euskararen alde egin duen lanarengatik

Agustin Mujikak, 50 urte bete ditu aurren eta bizitza bizi-bizia izan duela ezin da ukatu. Urtea borobiltzeko Ttakun Saria jasoko zuen. Euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lana eskertzeko ematen du urtero Ttakun saria elkarteak eta aurren Agustin Mujika Takolori ematea erabaki du.

Ez dirudien arren, euskaldun berria dugu Agus Mujika. 16 urterekin hasi zen euskara ikasten eta bat-batean euskal giroan erabat murgildu zen, "futbola utzi eta Michelingo bolatokia egoten nintzen Julian Etxaide bolaria zenarekin, musika jaialdi guztietara joaten nintzen, udan, udalekue-tan begirale, gazte mugimenduan ere ibili nintzen".

1977an gau eskoletan ikasle izan zen eta gerora, irakasle. Bitartean, Donostian sortutako euskarazko irakasle-eskolan lehenengo promozioa kide izan zen.

"Maisutzako praktikak Landaberri ikastolan egin nituen, eta gero Pablo Garaikoetxea ikastetxean euskarazko irakasle hasi nintzen. A ereduari, asteen ia 5 ordu gela bakoitzean, 5 ikasgela eta ia 150 umerekin. Berehala, euskara asinatura izanik, inolako motibazio kulturalik ez zuten hainbeste ume euskalduntzea oso zaila izango zela sumatu genuen" adierazi



“Euskararen Maratoiari buruz, ‘hasieran, erokeria zirudiena, gerora herriko egun zoragarria bihurtu da eta asko poztzen nau,’ esan du Agus Mujikak

zigu. Horren ondorioz, zenbait ideia bururatu zitzaizkien, eta hortik sortu ziren zenbait ekintza: eskolan emititzen zuen "Satorra irratia", Olentzeroren eguna, kanpaldiak, Santa Ageda...

Gainera, gerora horren eza-gunak egin ziren Takolo eta konpainia Olentzeroren etorrera prestatzeko sortu zituzten

Lasarte-Orian. "Herriko ikastetxeen arteko jardueren artean Olentzeroren eguna izaten zen deigarriena: normalean, Zumaburuko plazan, ia 1.500 ume biltzen genituen. Gehienek lehen aldiz janzten zuten euskal txapela edota buruko zapia. Ikusgarria zen. Urteik urtera gero eta ume gehiago ziren Olentzeroren zain, egun "magi-

koan". Giro honetan Olentzeroren etorrera prestatzeko Takolo pertsonaia Xixuko ahatetxoarekin batera sortu genuen. Dinamika honetatik sortu ziren gero Pirrutz (Patxi Sanz) eta Porrotx (Joxe Mari Agirretxe) pailazoak ere" azaldu zigu.

Takolo, Pirrutz eta Porrotxek Euskararen I Maratoiaren egin zuten bere lehen emanaldia,

azken finean "herrikoentzat sortu zen proiektuak, azkenean Euskal Herria osorako balio izan zuen" kontatu zigun Agustin Mujikak.

Lasarte-Orian ere euskara eragile dugu Agus Mujika, izan ere, 1986 inguruan sortu zen Euskara Taldeko kide izan zen. "Gure eginkizunak ezberdinak izaten ziren: batzuek euskal eremu baten aldarrikapenari lotuak, beste batzuek girotzekoak edota etorkizunari begira erakundeetan egindakoak. Lehen ikerketa soziolinguistikoa egiten ere hasi ginen. Geroago Udal Euskara Batzordea sortu zen, eta pentsaera ideologiko ezberdinetako jendea elkartzen ginela ikusirik, saltoa egiteko garaia zen. Herri-rik udalera eta udaletik herrira," azaldu zigu.

Honela, euskararen aldeko kanpainak antolatzen hasi eta Euskararen Maratoiaren ideia sortu zen, "giro horretan bururatu zitzaidan 40 ordu euskaraz egitea!"

"Lehenengo Maratoia, beste guztiak bezala, oso neketsua izan zen, baina bereziki bizia. Uste genuena baino askoz gehiago lortu zen," onartu zuen eta "hasieran, erokeria zirudiena, gerora herriko egun zoragarria bihurtu da eta asko poztzen nau," azpimarratu zuen Euskararen Maratoiaren aita eta zortzi-koteko kideak. •

aldika
produktu bereziak

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

*Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

Industrialde 19-20 • Tel.: 943 377089 aldika@euskalnet.net



Kale Nagusia 39
Tel.: 943 372668
Faxa: 943 370737

**NAROA
PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRRE**

*Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



Alejandro Romo / Artisaua

Urtetan egindako lan eskuzabalarengatik omenaldia egin zion Kukukak

Alejandro Romok 83 urte ditu, Orian jaio eta Zabale-tako aldapan bizi, bizitza osoa eman du herrian. Orain jada, "lagunartean egon" eta lasai bizi nahi du "ahal baldin badut". Baina orain artean beti egon da behar zuenari laguntzeko prest eta esku ona izan du lanerako.

Parodiako irudiak, Zabaleta-ko Teresa sorgina,... oro har kultura edo jaiekin lotura duten elkarte edo talde desberdinen-tzat lan egin du Alejandro Romok.

Esate baterako, San Pedro Jailetako garai bateko buruhandiak Alejandrok diseinatu zituen, baina "gero lrunen egin zituzten, gure marrazkietan oinarrituta."

Eta egun hauetan Danok Kideren egoitzan ikusgai egongo den Jaiotza Erraldoiaren sortzail-etako bat dugu Joxean Gome-zeekin batera.

Hala ere, azken urteetan Alejandoren eskuetan egon da jaiotzaren zaintza. "Hor ikusten diren tramankulu guztiak etxeko garajearen prestazioen nituen. Orduak? Batere konturatu gabe, askotan goizeko ordu biak eta hiruak iristen ziren" azaldu zigun.

Izan ere, birziklapenaren maisu dugu Alejandro. Esate baterako, Jaiotza erraldoiko pieza gehienak birziklatuak direla aitortu zigun, "jaiotza erraldoian, 22-23 motor zahar



dauzkat jarrita. Bat bakarrik erosi nuen, beste denak birziklatuak dira, eta erositakoa ez nuen jarri gainera, ez zeukalako indarrik. Ia dena birziklatua da, ia ez dut ezer erosten".

Gauzak honela, Jaiotzaren zaintza gazteen eskuetan jartzeko garaia iritsi zela jakinarazi zigun, "lana egiteko ez dugu balio jada" eta iazkoa jaiotzaz arduratzen zen azken urtea izan zen, "bukatu dut. Aurten lagun-duko diet, norbait joaten bada". Eta horrela izan da gainera, jaiotzaren zaintza eta lekukoa Txus

Alonso eta Iñigo Bobilloren esku utzi baitu Alejandrok.

Romok laguntzen dituen taldeen artean, Kukuka antzerki eta dantza eskola dugu. "Garra-si Ixilak laneko trintxerak egin nituen, dekoratu batzuk, maska-rak,... beti zer edo zer, etortzen direnean, hor ibiltzen gara sal-tsan," adierazi zigun.

Eta hau guztia, gustura egin-dako lana denez, "ez da lana" Alejandrentzat. Gainera, eskuzabaltasun osoz egiten du, "ez zait kostatzen hori egitea, naizena naiz eta besteei lagun-

tzea ez zait kostatzen, batzuk esaten didaten arren ergela nai-zela, lanak egin eta ez kobratzeagatik. Ondo ordaindua sentitzen naiz".

Horregatik, Kukuka Antzerki eta Dantza Elkartek hainbat urtetan Romok emandako lagun-tza eskertu zion azaroaren 6an.

Kukuka Antzerki eta dantza taldea, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoak, herriko hainbat talde eta mila bat lagun bildu zituen jaialdian, Alejandro Romori omenaldia egiteko tarte-txoa egon zen.

“Naizena
naiz eta ez zait
kostatzen besteei
laguntzea,
batzuk esaten
didaten arren
ergela naizela,
lanak egin eta ez
kobratzeagatik.
Ni, ondo
ordaindua
sentitzen naiz”

Kukuka Antzerki eta dantza taldeko kideen eskutik egurrean tailatutako oroigarri polit bat jaso zuen Alejandrok, Lasarte-Oriako kultur arloan musu truk egin duen lanarengatik. Honela-ko ekitaldien zale ez bada ere, Alejandro Romok aitortu zigun oroigarria "oso polita" dela eta "pozik eta hunkituta" jaso zuela.

"Eskertzekoa da hori. Baina zoriondu nahi ditut beraiek ere, egiten duten lanarengatik. Antzerkikoek eurek dute meri-tua. Nola ez nien ba lagundu-ko!," adierazi zigun. •

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku Eder etxea)
Tel.: 943 372737
20800 ZARAUTZ

Ondo pasa gabon jaiak!

- Edozein eratako bidalak egiteko zerbitzu aproposak.
- Bestelako zerbitzuak.

i.GRRUZOLA

ARROZTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

IZAN EGUBERRI ZORIONTSUAK!

Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA



“Euskararen aldeko lan handia egin dute ikastetxean: ‘Kontent nago egindakoarekin. Poza hartzen dut egun eskolara hurbiltzen den norbaiti umeak euskaraz zuzentzen ikustea’



Koru Goikoetxea / Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko zuzendari eta irakasle ohia

24 urte umeen hezkuntzaz arduratzen

Bere bizitza osoa irakaskuntzan eman eta gero, pasa den ikasurtean iritsi zitzaion erretiroa hartzeko eguna Koru Goikoetxeari.

24 urtez izan da Lasarte-Orian irakasle eta horietatik 15, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko zuzendari bezala egin ditu.

“Lehendabizi Andatza Plazan zegoen Ikastolan hasi nintzen haur hezkuntzan. Hor ginela zuzendaritzan parte hartzeko talde bat osatu genuen. Ondoren, lehen hezkuntzara pasa eta Sasoetako zuzendari bihurtu nintzen,” azaldu zigun Koruk.

Sasoeta eta Zumaburu ikastetxeen fusioa bizi zuen Koruk, “mapa eskolarra etorri zenean bi ikastetxeen fusioa egin behar izan genuen. Egoera gogorra izan zen. Bi ikastetxe ginen, ezaugarri antzekoekin, baina ezberdinak. Baina zorionez, oso ondo moldatu ginen guztiak”.

Euskararen presentzia eskolan nabarmentzeko lan handia egin zuen zuzendaritza taldearekin batera. “Taldea lan handia burutu genuen. Kontuan izan behar da gure ikastetxean hasi ginenean bazeudela irakasleak euskaraz ez zekitenak, baina bere aldetik asko jarri, eta duela urte dezente klaustro guztia euskaldun bihurtu zen,” azaldu zuen.

Kontent dago gainera ikastetxean euskararen alde burututako lanarekin, “poza hartzen dut egun eskolara hurbiltzen den norbaiti umeak euskaraz zuzentzen ikustea”.

Honetaz gain, Eskola kontseiluko bultzatzaileetarikoa bat dugu Koru Goikoetxea. “Ikastetxeak eta guraso elkarteak eskatutako zerbait izan zen. Ez dakit noraino iritsiko diren, bideak jarriak daude. Guraso, irakasle, udaletxea elkarrekin lanean ari dira gogor,” jakin arazi zigun.

2009-2010 ikasturteko amaierako jaialdian irakasleek eta gurasoen elkarteak omenaldia egin zioten: “oso hunkigarria izan zen momentua. Agurrak oso gogorrak iruditzen zaizkit, baina gurasoak oso ekitaldi polita antolatu zidaten eta irakasleek bertso polit bat kantatu”.

Hona hemen irakasleek abestutako bertsoa:

Horrenbeste sentimendu oroitzen ta bizipen bertso batean laburtzen sarritan ez da jakiten. Lehena zinen zu Koru beti lanari ekiten urte luzetan euskara ta ilusioak pizten laguntza eske joanda ez duzu aterik ixten irriparra ezpainetan ta ezin meriturik ken nahiz ta bazoazelako guri malko batzuk irten segi ezazu bizian zure bidea egiten. •

Milagros Etxaniz / Dendaria

Erretiroa hartu eta Aburuza janari-denda itxi zuen

Aburuza janari-denda 1972an ireki zen Lasarte-Oriako Kale Nagusian. Hasieran Milagrosen senarra zen dendaria, eta bera laguntzaile. Baina orain dela 27 urte senarra hil zenean, Milagros jarri zen janari dendaren buru, “hasieran uste nuen ez nuela aurrera ateratzen lortuko, baina lortu nuen, eta hori niretzako satisfazio handia izan zen. Eta guztia, bezeroei esker.”

Guztira, 38 urte egin ditu lanean, horregatik, apirilean erretiroa hartu eta Aburuza janari-dendak atek itxi zituen.

“Oso ibilbide polita izan da hemen bizitakoa. Esfortzu eta sakrifizio urteak izan dira, baina burutu dudana jardura oso esker onekoa izan da” adierazi zigun bere laneko azken egunean.

Herritar ugarien hozkailuak eta armairuak hornitu ditu Abu-

ruza janari-denda irekita egon den denboraldi luzean, “imigrazioa eman zenean, jende ugari etorri zen herrira, eta hauek ere nire dendan erosten zuten. Negozioak funtziona zezan lagundu zuten” azaldu zuen.

Horregatik, “oso eskerturik sentitzen naiz lasarteoriatarrekin eta biziarazi izan didaten garairekin, oso polita izan da. Badago jendea lanera kostata joaten dena, ni ez, beti ilusioz etorri naiz” onartu zuen Milagros.

Gainera, “bezeroak askotan esan didate denda honetan sartzea etxera sartzea bezalakoa zela. Denda txiki hauetan bezeroekiko tratua etxekoekin bezalakoa da, oso hurbila. Erosketak egiteaz gain, gure gauzetaz ere hitz egiten genuen. Hemen bezeroak lagun bihurtu dira, eta nire erretiroa penaz hartu



ekilore
Goxokiak
Fruitu lehorrak
Olibak
Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 360863
LASARTE-ORIA

InmoGes
Inmobiliaria
Gabin zoriotsuak opa dizkizuegu!
Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662

MAYA
Lentzeria
Kortse-denda
ONDO PASA
GABON JAETAN!
Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 363665



Elias Goikouria/ Zero Sette akordeoi orkestrako zuzendaria

Hogei urte Zero Sette akordeoi orkestrari eskainiak

dute askok,” adierazi zigun.

25. urteurrenean janaridenda guztiz berritu zuten, “denda jada zaharkitua zegoen, zer bait egin behar genuen, eta horrek aurrera jarraitzeko indar handia eman zidan. Nire alaba zaharrenak diseinatu zuen denda berria, bera arduratu zen guztiaz. Gainera, nire ondoan okindegia jarri zuen. Garai ederrak izan ziren haiek” gogoratu zuen.

Orain hainbeste lan egin ostean, erretiroaren garaia iritsi zaio Milagrosi eta “nire bizitzaren momenturik hobereanean nago orain. Lana uzteko momentu ederra, osasuna daukat eta bizitzaz disfrutatu nahi dut. Urte hobereenak lanean pasa baditut ere, oraindik urteak geratzen zaizkit. Orain arte egin ez ditudanaz disfrutatzea dut helburua” aitortu zigun. •

“ Oso eskerturik sentitzen naiz lasarteoritarrekin eta biziara izan didaten garaiarekin, oso polita izan da. Badago jendea lanera kostata joaten dena, ni ez, beti ilusioz etorri naiz

Zero Sette akordeoi orkestraren sortzaile eta zuzendaria Juan Antonio Mercero 1990. urtean, eman zion erreleboa herriko gazte bati, Elias Goikouria. Aurten hogei urte egin ditu orkestraren zuzendaritza hartu zuenetik. “Norbaitek egin behar zituen zuzendari lanak eta ni jarri nintzen ideia askorik izan gabe” onartu zuen Eliasek.

“Niretzat Zero Sette akordeoi orkestra bizi erdia da, edo gehiago” azpimarratu zuen Eliasek. Izan ere, zuzendari lana, ez da lan makala eta abesti berriak aurkitu behar ditu, “abestia entzun egin behar dut, partiturak aurkitu, moldatu. Loaldiari orduak kentzea da” aitortu zigun.

Hamaika kontzertu eta partitura zuzendu ditu geroztik, baita orkestra kide ezberdinak ere. Bi disko grabatu ditu eta orkestraren 20. urteurrena bete du zuzendari bezala.

Bere lehenengo kontzertua Billabonan izan zen eta, herrian, urriaren 20ean, Biyak Bat Erretiratuen elkarteak, Arantzazuko Amaren elizan, antolatu zuen Zaharren omenaldian.

2007a izan zen emandaldi gehien zuzendu zituen urtea, 16 kontzertu, eta horietako bat, gainera, berezia izan zen Zero Sette Orkestrak Kursaal aretoan jotzen zuen lehenengo aldia zelako, Donostiako Orfeoia antolatzen duen Unicef jaialdian barruan.

Honetaz gain, bere zuzendaritzapean, urtero antolatzen den eta izena duen Akordeoi jaialdia sortu zen, “deigarria da, Lasarte-Orian akordeoi jaialdia sortzea. Udalarren laguntzaz noski. Jaialdia herriarentzat eta akordeoiarentzat publizitatea da. Era honetako jaialdi gutxi dago”.

Elias-en zuzendaritzapean lehenengo txapelketa Reina Sofiakoa izan zen eta “ausartak izan ginen eta zuzendari bezala bi urte neramatzala, Madrilgo



Reina Sofiara joan ginen eta guretzat sorpresa ederra izan zen irabaztea”.

Aipatzekoak dira ere orkestrak lortutako beste sariak: Ourenseko Lehiaketako lehen saria, Torrelavegako lehiaketako lehen saria hainbat urtetan, Cedeirako lehiaketako lehen saria eta Frantziako Andrezieuxeko Sari Nagusian zilarrezko domina, baita Ginebrako Nazioarteko Sari nagusian ere.

Horretaz gain, bidaia ugari

egin ditu orkestrak Estatu mailan, baita Europa mailan ere. Polonia, Frantzia, Italia, Suitza edo Alemania bisitatu ditu orkestrak Elias Goikouria zuzendari duela.

Lasarte-Oriako ekimenetan ohiko izaten da Zero Sette akordeoi orkestraren presentzia, hala nola, Zaharren omenaldiko jaialdian edo San Pedro jaietako omenaldian.

Baina, beste herriko taldeen batera ere lana egin du eta

hainbat ekitaldietan ere zuzendu ditu. Aipatzekoa da, Alboka Abesbatza eta Erketz E.D.T.-rekin batera, Euskararen Maratoiari amaiera ematen dion ikuskizuna, Eusko Irudiak,...

Aurki orkestraren 25. urteurrena ospatuko da, “oso harro nago horrelako akordeoi taldea zuzentzeaz eta batez ere, akordeoi jole profesionalak ez diren taldea 23 urtez mantendu delako eta kalitatezko lana eginez,” azpimarratu zuen. •

“ Oso harro nago horrelako akordeoi taldea zuzentzeaz eta batez ere, akordeoi jole profesionalak ez diren taldea 23 urtez mantendu delako eta kalitatezko lana eginez

tsst

**Gure herriko autobusekin,
Ospitaleetara
ere bai!**



EGUBERRI ON!

autobusen
TST
zerbitzua

Azkarra, segurua eta erosoa
Tel.: 943 361740
www.tsst.info



Lasarte-oriatarrak 2010ean

Santos Uribe/ Atleta beteranoa

Errekorrak, dominak eta omenaldia

Santos Uribe herriko atletak 76 urte eta 40 urtetatik, beterano mailan dabil lehiari punta-puntan. "Espainiako hainbat txapelketetan egon naiz eta Espainia osoa ezagutzen dut, punta batetik hasi eta bestera arte," azaldu zigun.

Gaztetan, 17 urte zituela egin zuen bere lehenengo proba, "Hipodromoan Nazioarteko kroasean Espainiako taldekako txapelketa izan zen. Ni orduan, Hernaniko taldean nintzen eta taldea sortzeko jendea behar zuten" azaldu zuen.

Beterano mailan hasi zenean, atleta lasarte-oriatarren lehenengo taldea Michelen izan zen eta horrekin lotuta, Landaberriko gaztetxoaren atletismo moko begirale izan zen. Taldea desagertu zenean, Andoaingo Zumeatarra taldera joan zen, "talde horretako Bixente Huizi

eta Joxe Mari Garin ezagutzen nituen, bertara joatea erabaki nuen".

Garai haietan iraupen-lasterketetan, 800 eta 1.500 metrotako probetan parte hartzen zuen Santosek. Hau guztiaz gain, Behobia-Donostia lasterketa hamaika aldiz eta lau maratoinetan parte hartu du.

Gaur egun, martxako probetan dabil. "Belaunak mindu eta, duela hamar bat urte, martxa egiten hasi nintzen" onartu zuen.

Aurten, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak dugu Santos Uribe 75 urtetik gorako 5 km-ko martxa proban.

Eta horretaz gain, bi lehiaketa hauetan proba horretako Estatuko marka hautsi zuen atleta lasarte-oriatarrak. Gipuzkoako txapelketan, ordura arte, 38:09an zegoen, marka 37:25

*“ Aurten
Gipuzkoako eta
Euskadiko
txapelak
eskuratu eta bi
alditan Estatuko
errekorra hautsi
du. “Poz handia
dut” adierazi
zuen Lasarte-
Oria Bai!
kroasean
1 dortsala eman
ziotenean*



utzi zuen eta hiru astetara, Euskadikoan 36:05ko denbora egin zuen.

Nahiz eta belaunean min izan, Lasarte-Oria Bai! kroasean ohiko da Santos. Horregatik, omenaldi gisa, Ostadar Kirol fundazioko antolatzaileek aur-

ten 1 dortsala Santos ematea erabaki zuten.

"Poz handia dut horregatik. Gainera, nire lagun mina den Eulogio de la Serna eman zidan dortsala kroasean aurkezpenean" adierazi zigun atleta beteranoak. •



Miriam Infante / Futbol jokalaria

Euskadi eta Estatuko selekzioarekin hainbat partida jokatu ditu aurten

Ostadar K.F.ko emakumezkoen kadete futbol taldeko kidea dugu Miriam Infante gaztea.

Gaztea izan arren, 15 urte, 16 urte azpiko mailan Euskadiko selekzioarekin jokatzen du, noizbehinka Emakumeen Super Ligaxkan jokatzen duten Errealeko futbolariekin entrenatzen du, eta Espainiako selekzioarekin jokatzeke ere deitu diote.

Miriamek bost bat urterekin hasi zen baloiari ostikoka. Gogoan du baloia izan zuela oparirik politena. Gero, futbola aukeratu zuen beste kirol batzuen artean eta maila onean ari da jokatzen. "Kirol honek

zorutzen nau, oso gustukoa dut. Beste kirol batzuk ere egin ditut, baina 11 urterekin futbola aukeratu nuen asko gustatzen zaidalako, eta hemen nago," onartu zuen Infante.

Euskadiko selekzioarekin hainbat partidatan parte hartuko du Lasarte-Oria futbolariak. Lehengo asteburuan, esate baterako, Valentziako Erkidegoan egon da Espainiako txapelketako lehenengo fasea jokatzen eta Euskadik sailkapena lortu zuen taldeko lehenengo bezala.

Honetaz gain, aurten, 17 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin jokatu du 2011ko

Europako Txapelketarako sailkatzeke torneoan Georgia, Bielorrusia eta Holandaren aurka. Hiru partidak irabazi zituzten, hiruetan jokatu zuen partidua osoa Lasarte-Oria jokalaria gazteak eta lehenengoan bi gol sartu zituen. "Hiru partiduetan egindakoarekin oso pozik eta gustura nago," aipatu zuen.

Aipatu bezala, Errealeko Super Ligaxkako neskekin entrenatzen da, baina Miriamek adierazi zigunez, "ez dut jokatuko oraindik. Esan didate gaztea naizela, entrenatzeko eta lasai hartzeko. Etorkizunean ikusiko da. Agian lagunarteko partiduren bat jokatuko dut". •

“ Futbolak zoritzen nau, oso gustukoa dut. Beste kirol batzuk ere egin ditut, baina 11 urterekin futbola aukeratu nuen



ANAIK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386





Kukuka antzerki eta dantza eskola sortu zen.- Landaberri Dantza eta Antzerki eskola bezala sortutakoa, aurten Kukuka elkarteak bilakatu da. Zortzi urteko ibilbideren ostean, taldearen eraberritzea eman zen eta egun, izaera juridikoa eta antolakuntza berria du antzerki eta dantza eskolak. Gero eta ikasle gehiago ditu eta mugimendu handia eragin du, aurten 650 ikaslelik gora dira. "Poliki-poliki jaiotako antzerki eta dantzaren mundu hau, hazten eta hezten joan da, egun errealitate handi bat osatuz," azaldu zituzten arduradunek. Proiektu herrikoia den heinean, finantzaketan herri guztiak parte hartzea ezinbestekoa du. Diru laguntza apurrak eta ikastaroen kuotak ez dira nahikoa, eta beraz Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldi berezia antolatu zuen Kukukak, Zubietan. Pailazoekin batera herriko elkarte eta talde ezberdinak dantzan eta kantuan jarriko zituen.



Zaballosek Urchueguiaren lekua hartu zuen.- Otsailean, Ana Urchueguia alkatea hurrengo hauteskundeetan ez zela aurkeztuko zioen zurrumurrua egi bihurtu zen. Lasarte-Oriako alkateak utzi eta Eusko Jaurlaritzak Txilen duen ordezkariaren lanean hasiko zela jakin genuen. Horren ondorioz, hurrengo hauteskundeetara arte, Jesus Mari Zaballosek, Gazteria eta Jaien batzorde buruak, Anaren lekua hartuko zuela ere jakin zen. "Momentua zen, erabakia hartu beharra nuen eta udalbatzan dagoen jendearek lekua utzi" azpimarratu zuen Urchueguiak. Martxoaren hasieran hartu zuen kargua Zaballosek eta bere lehenengo diskurtsoan, "oso eskertua nago eta ilusioz betea gaur eman didaten betekizunarengatik eta, era berean, kontzientzia naiz niregan hartzen dudaren erantzukizunaz," adierazi zuen gaur egungo alkateak.

EGUBERRI ON !

INQUIETUD

Neurriak 36tik... 60ra

Nagusia 49
Tel.: 943 370 290

Serranos

igeltserotza
iturgintza

Eguberri on !

Gas-instalazioak
Berokuntza eta pintura

Erakusketa: Zumaburu kalea 5, atzea • Tel.: 943 366681 • LASARTE-ORIA

ABREU

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu !

Geltoki 2 • LASARTE-ORIA
Idiazabal kalea 32 • URNIETA
Tel.: 943 365846

LAGUNAK

Eguberri on !

Etxebizitzetako
eta
komertzioetako...

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA

INFORMATIKA

MARTINEZ MULTIMEDIA

Ondo igaro gabon jaietan !

Ezagutu itzazu
gure eskaintzak,
beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2, behea • Tel./Faxa: 943 360591
LASARTE-ORIA

URPA

AUTOBUSAK

Izan Eguberri zoriontsuak !

- Luxuzko autokarrak.
- 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.
- 56 plazako autobusak.
- Literadun autobusak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: info@autocaresurpa.com
web orria: www.autocaresurpa.com

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu !



Bila bazabiltza, hementxe duzu

gure BETIKO kafea



**GURE
KALITATEA
DASTATU**



*Erabateko gutizia aurkituko
duzue gure produktuetan!*

Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA



**IRIGOYEN
OPTIKA**

**EGUBERRI ON
OPA DIZUEGU !**

Largoenea 1 , Tel.: 943 371047



**ABEND
KAFE-ANTZOKIA**

Izan Eguberri zoriontsuak !

Gozeko Sak arte irekiba!!

**EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK**

**Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA**





Hollywoodeko izarrekin egon da aurten Iñigo Argazkian, John Malkovich aktore eta zuzendariarekin.



Aitor Lopez Rekarte futbol jokalaria ohia aurkitu zuen Donostiako kaleetan.

Iñigo Artolak urte oparoa izan du.
Aurten ere, lanpetua egon da Iñigo. Zinemako izar eta zuzendarien, hala nola, Olivia Williams, Marisa Paredes, Ernesto Alterio, Imanol Uribe edo pertsonaia ezagun askoren sinadura eta argazkiak lortu ditu. Irudiotan ikus ditzakezue bere altxorretako batzuk. •



Pasqual Maragall Generalitateko lehendakari ohiarekin egon zen Iñigo.



Alex de la Iglesia zuzendariarekin ere topo egin zuen herritarrek.


SANCHO TABERNA

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK**

**Kaxuela,
pintxo eta
morunoetan
espezializatua**

**Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Eguneko menua**



Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075

Eguberri on!

• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA

• JANGELA EGOKI-EGOKIAK,
EZKONTZAK, JAUNARTZEAK
ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO

• ETXEKO ESPEZIALITATEA:
PARRILLAN ERRETAKO
ARRAINA ETA HARAGIA.

**DANA ONA
JATETXEA**

restaurante@danaona.com
Zubieta (Hipodromoaren ondoan)
Tel.: 943 365347/943 361731 • Faxe: 943 366020



"Arrasteroen erruz galdu zen angula"

■ 2000. urtean utzi zion Orian txitxardinak harrapatzeari ■ 1967ko gabon gauean 37 kilo hartu zituzten bere aitak eta biek ■ 18 urte zituenetik garraiolari gisa ari da lanean

Joxemiel Bereziartua Aginako Uriberrri baserrian jaio zen, eta ondo ezagutzen ditu Oria eta honen ibai ertza, ala deituriko txalupa tradizionalan makina bat joan etorri egin baitu hara eta hona, batetik arrantzan eta bestetik baserrian lantzen zituzten lur gehienak ibai bestaldean zituztelako. Txitxardinak (angulak) hartzen gau askotan ibilia bada ere, garraiolaria da ofizioz, eta sasimedikua afizioz. Eskuekin sendatu eta minak kentzen ditu. Lasarte-Orian Mikel deitzen diote duela 35 urte iritsi zenetik. Bertsoak idazten ditu eta bizitzako pasadizoekin, liburua argitaratzeko zirriborroa idazten ari da.

Jon ALTUNA

Aginagako etxe askotan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza uztartu dituzte eta horietako batekoa da Joxemiel Bereziartua, lagunentzat Mikel, eta hasteko zera argitu digu: "Batzuek Aginaga Usurbilgo auzoa dela esaten dute, baina guretzat herria da". Zazpi urterekin hasi zen txaluparekin arrantzan, amak igerian ikasi eta "komunio txikia" egin arte, ez zion utzi eta, baina aurretik sardexkarekin harrapatzen zituen aingirak.

Hiru bat urte zituela izan ziren uholede beldugarri batzuek guztia dauka gogoan eta bizitzako pasadizo eta ibaiaren inguruko kontu eta datuekin, liburu bat idazteko zirriborroak egiten hasi da. "Ni mundu hone-tatik joaten naizenean horietatik asko galduko dira bestela".

Bereziartuak dio bera, aita eta osabak beste ez dela inor ibili erriean arrantzan eta ez duela inork hain ondo ezagutzen. Aurreko mendeetatik erabili ohi zituzten eta galtzear diren erreminta, arrain, txori eta hegazti, arbola eta Oriako ibai bazterren izenak jaso nahi ditu liburuan. Lekuen izen denak dakizki hasi Oriotik eta Lasarteraino tramoz tramo.

Baserriko lana eta bizitza "oso txarra" zela dio, "Ala (txalupa) handiarekin ibiltzen ginen, lurak urez bestaldean

geneuzkan eta gehiena bizkar gainean erabili behar,...". Gainera, paper fabrikek botatzen zuen zikina zela eta urte batzuetan ibaia beltza jaisten zen eta ez zen ia txitxardinik, (berak horrela deitzen die angulei) edota beste arrainik eta garraiolari lana aukeratu zuen".

Garraiolari

"Garai batean beltza egon zen erreka, ez zegoen arrainik, ez zegoen ez bizirik. EPOn hasi nintzen, Hernaniko Eskola Profesionalen, delineatzaile industrialak ikasten, 14-15 urterekin eta ondoren, Michelin lanean baina soldaduska pasa bitartean miseri bat ordaintzen zuten, 5.500 pezeta 1968an. Lagun batzuek gidatzeko baimena atera eta 9.000 irabazten zituzten Donostian lanean. Nik esaten nuen, "nik zertarako estudiatu dut? Hauek nire doblea irabazten!", beraz, garraiolari hasi nintzen Bergarako batzuekin eta hiru urte ondoren neure kontura". Han hasterako, kontuak atera zituen, (pentsuaren salneurria,...) eta argi esan zien gurasoei baserriarekin ez zegoela ezer onik. "Arrantza zen gure bizi poxa, txanponak ere hortik ateratzen ziren. Ura beltza egon zenean izorratu zen dena".

Orain, 2000. urtetik, jada txitxardinaren arrantza utzita dauka eta garraiotik ere "ahalik eta azkarrena" erretiratzeko

asmoa du. "Bost urte, beste bi erantsiko dituztela ere esaten ari dira,... baina sasi mediku bezala, gero eta bezero gehiago ere badauzkat eta igual lehenago erretiratuko naiz. Eta hortik ez naiz jubilatuko, gogokoa dut eta,...". Lagun asko egin ditu mina duenari lagunduta.

Bertsolari

Bi astean behin joaten da Jon Azpillaga bertsolariarengana. Bi belaunetatik operatu behar zuten eta pare bat urtetan izorratua egongo zela uste zuen: "akabo nire bertsosaiok" esaten omen zion, baina Bereziartuak minak kenduko zizkiola esan eta oraindik ez da operatu. Aspaldiko lagunak dira Azpillaga eta Bereziartua. Hau gaztetan ibili zen bertsolari, besteak beste Peñagarikano eta Muruarekin, baina ez omen zen plaza gizona eta utzi egin zuen.

Gerora hainbat bertso paper idatzi ditu hala ere. Batzuek Oiartzunen Girizia elkarteak antolatzen duen bertso paper lehiaketara bidaltzeko. Beste bertso batzuek kartzelan preso den Xabier Aranburu "Xomorro" agiñarrari bidali zizkion eta honek erantzun. Udako oportetean lasto bila joaten ziren eta "Xomorro" eramaten zuen laguntzaile. "Bazkalostean jo eta fuego ibiltzen ginen bertso-tan biok. Gainera, lasai, aurrean inor ez geneukala,..." kontatu digu Bereziartuak.

Koinatua hil zenean apaizak lau bertso jarri eta hiletan kantatu zituen. Gero berak zortzi jarri zizkion apaizari.

Goizean goiz idazten ditu bertsoak. "Lo gutxi egiten dut, lau ordu terdi, eta nire burua argiena orduantxe egoten da, goizeko Sak aldean".

Sasi mediku

Beste magnetista batek eman zion sendatzeko eta minak kentzeko duen dohainaren berri: "berak baino energia gehiago nuela esan zidan eta hark ia dena sendatzen zuen. AEBetan, Finlandian,... estudiatu zuen eta esaten zuen magnetismo eta energia denok daukagula, baina gutxi gorabehera sei milioitatik batek daukala sendatzeko beste energia".

Orkatila edo belauneko bihurrituen minak hiruzpalau saiotan kentzen omen ditu bere eskuekin. "Bestela bi hilabete inguru behar dira sendatzeko. Aurreratu egiten dut nik".

Ez hori bakarrik. "Muina

muinarekin jarri eta energia negatiboak ere txupatzen ditut. Munduan bakarrenetarikoa naiz hori egiten duena. Arrisku-tsua da niretzako. Depresioan daudenek energia negatibo asko edukitzen dute: dena ez, ez eta ez; eta asko daukanari dena txupatzen badiot, ni gaitxotu naiteke. Hor kontuz ibili beharra daukat".

Kontu hauetan sinesmen handia du eta liburuak begiratu ditu: "nabilen tokian nabilela ere, horretarako tartea hartzen dut".

"Erreminta, arrain, txori eta hegazti, arbola eta Oriako ibai bazterren izenak jaso nahi ditut liburuan. Ni mundutik joaten naizenean izen horietatik asko galduko dira bestela"

MINHOA TABERNA Eguberri on!

Razioak Pintxoak

Etorri dastatzera!

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

Ondo igaro gabon jaiak!

Antonio Benito

Erregistratzeko kutsak eta pantaila taktikak dutenak

Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA
www.antonibenito.net

NEUS ile-apaindegia

Eguberri on!

Pablo Mutiozabal 9-1.C
Tel.: 943 361691
LASARTE-ORIA



“ Goizean idazten ditut bertsoak.
Lo gutxi egiten dut, lau ordu terdi,
eta nire burua orduan dago argiena

Lanak uzten dion tartetan sendatzen eta minak kentzen ibiltzen da baina ez du kobratzen. "Ez, borondatea. Titulurik ez daukat eta, baina konstelazio familiarrak egiten dituen Irungo lagun errumaniar batekin aterako dut Reiki titulua".

Ez da geldirik egoten den pertsona, denbora hartzen du denerako "Nik gauza asko eta lo gutxi egin dut. Gauza asko egiteko lo gutxi egin behar da" dio eta horrek azalpena ere badu: "Lau ordu eta erdi egiten ditut lo. Loak bi zati ditut, nik gaztetan bederatzia ordu egiten nituen, baina gero txitxardineta lo gutxi eginez hainbeste gau pasa eta, (hiru egun batere lorik egin gabe ere bai), nire burua jada lo erdiarekin gelditu da, nahikoa du, baina kargatzen joaten naiz eta ostiral gauean bederatzia ordu egiten ditut. Ez minutua gora ez minutua behera. Matematikoa da. Lau ordu eta erdi ere berdin, ez minutua gora ez behera".

Txitxardinak biltzen

Zazpi urterekin hasi zen angulatan, beti gauez biltzen zituzten, "hontzak dira gure lagunak. Gogorra da, baina, gustatuz gero badakizu,... gustuko lanean ez dago aldaparik". Gau batzuetan angula batere harrapatu gabe itzuliko ziren etxera, baina beste askotan kilo batzuekin ere bai. 1967ko gabon gauean 37 kilo angula hartu zituzten aita eta biek, gau batean bildu duen gehiena: "errioa kafea bezala zetorren, beltza, paper fabrikak

“ Urik ez da
ikusten, aita, dena
da txitxardina"
esan nion. Aitak
ez zuen sinesten.
Gau hartan 37
kilo bildu genuen,
hurrengoan 27,
hurrengoan 13,
baina berriz ur
beltza sartzen
hasi zen eta akabo

“ Muinarekin energia negatiboak
ere txupatzen ditut. Munduan
bakarrenetarikoa naiz hori egiten

botatzen zuen zikinarekin, baina, gabon garaian 15 egun jai ematen zien langileei. Papelera itxi eta segituan garbitzen zen ura. Kasualitatez, 1967an, euria egin zuen, urak garbitu eta berehalaxe, ilargia tokatu zen eta gabon afaria bukatzen ari ginela aitak esan zidan, "bada ezpada joan hadi argiarekin, txitxardinak izango dituk igual gaur". Orduan 17 urte nituen, joan nintzen, eta dena zen angula: "urik ez da ikusten, aita, dena da txitxardina" esan nion. Aitak ez zuen sinesten. Gehiena gau hartan bildu nuen aitarekin, 37 kilo angula. Hurrengo gauean 27, hurrengoan 13,... Hirugarren egunean hasi zen berriz ur beltza sartzen, eta akabo. Akabatu egingo ziren denak noski".

Ur beltzak etortzen ziren garai hartan, aita eta biak, Zumaia joaten ziren arrantzara eta gero Debara ere bai, barruko arra asetzeko. "Odolean dugu arrantza. Igandetan joaten ginen trenean, ilundu arte, gero astelehenetan saltzeko".

Blok baliotsua

Blok batean 1993tik aurrera saldutako aingira, angula,... kilo eta prezioak jasota ditu, eguneroko batean bezala, 2000. urtean utzi zuen arte. "50 urte betetzerakoan utziko nuela esan nion neure buruari".

Arrain eta angulak saltzeko bezero onak zeuzkala dio Bereziartuak. "Ama Donostiako "Casa Nicolasa"n izan zen sukaldari ezkondu zen arte (orain gutxi itxi da jatetxe famatu hau); eta harrapatzen genituen txitxardin asko hara eramaten genituen. Geuk maneaten eta prestatzen genituen, arpillera gainean mimo guztiarekin sikatuaz, ez beste angulero handi eta industrialek bezala. Nik ikusten ditut eta hain onak ez dira ateratzen".

Txitxardinaren galera

Gaur egun ia ez dabil angularik. Bereziartuak argi du zergatik gertatu den galera hori: "Batetik, paper fabrikako ur


zikina dago, baina azken urteetan arrastean aritu zirenek izorrratu zuten dena. Mugitzen den guztia edo ia guztia harrapatu zuten. Lehenago erdiak edo gehiago gora pasatzen ziren, eta utzi beharra dago aingira egin dadin. Ia dena harrapatzen baldin bada, eta ez bada aingirarik, azkenean akabo. Arraste-arrantzaleek, tratua egina zuten, Zaikola arte arituko zirela; hortik berez ez zuten pasatzerik, baina gehiago eskatzen hasi eta azkenean Usurbileraingo ibili ziren. Asko harrapatzen zuten".

Gehiegizko harrapaketa

Dena den antxoa bezala txitxardina ere errekuuperatuko dela uste du. "Utziz gero bai. Eta azkar errekuuperatuko da gainera. Galarazten hasi zirenean arrasteen harrapatzea galarazi bazen ez zen hau gertatuko. Lagun batzuek ibili ziren Santanderrera joanda baina ez zuten ezer lortu. Orio-koek izorrratu zuten, itsasoan zenbiltzanek, antxoaren karpaina bukatutakoan eta atunarena hasi bitartean, honetan ibiltzen ziren. Nik 80 arraste-ontzi paseak kontatu nituen behin errio txiki horretan bueltaka, eta hori asko da".

Orain azaroaren 15etik aurrera bi hilabetetan uzten dute soilik, baina berandu da Bereziartuaren ustez. "Lehenago hartu beharreko neurriak orain hartu dituzte. Alarekin genbiltzanekin hitz egindakoa konplitu balute, jarri zen mugatik behera aritu balira, ez zen hainbeste galduko".

Badaki berriz txitxardineta hasiko balitz harra berriz piztuko litzaiokeela. "Oraindik ere lagun bati esaten diot, "gaur joan hadi" eta nora joan ere esaten diot". Bereziartuak dio errioan alarekin gehiena ibilitakoetako bat bera izango dela. Gehiena ibilitakoak eta denetik harrapatzen, ni, aita eta osabak, sei anai ziren, denak arrantzaleak: aingiretan, izkiretan,... Amak egiten zituen esparberekin, berunekin hon-



Incomán

Eguberri jai zoriontsuak igaro!

- ☛ **Elektrizitatea aurrezteko ikerlanak.**
- ☛ **MIC transpalak.**
- ☛ **MIC metagarriak.**



Antxota kalea 2 • Tel.: 943 373198 / 943 373153 • Faxa: 943 365935 • LASARTE-ORIA



“ Azkena egin nuen ala jaiotetxean daukat. Urte erdian egin nuen neuk bakarrik asteburuetan lana eginez

dora botatzen diren sareekin, azpian harrapatutako arrain guztiak jasotzen genituen: lupia, korrokoa,...

Bereziartuatarrek alarekin egiten zuten angulen arrantza: atoian, soka baten laguntzaz, goian, erdian edo behean kalatuz. "Hotza egiten bazuen azpitik joaten zen txitxardina, hego haizea bazen goitik. Baia handia izaten zen eta makina batekin ekartzen zen txitxardinak askara botatzeko. Alan bertan 8 arroako aska geneukan". Ehun kilokoa beraz.

Pisua neurtzeko libra eta arroa erabiltzen zuten, eta sailak goldeetan neurtzen zituzten. Metroa, hektarea eta kiloa gerora zabaldu ziren. "Neurri horiek galdu egin dira, txori eta arrainak ere desagertzen ari dira eta nik ama lurra defenditu nahi nuke. Eta aldi berean galdu baino lehen guzti hori liburu batean jaso".

Nekazari

Angula asko harrapatzen zenean ongarri bezala erabiltzen zela esatea txorakeria iruditzen zaio. "Guk lurrari ez genion santa sekulan bota. Aginagan ez dut hori ikusi. Udan aingira egitera zihoana ere harrapatzen zen, eta hezurra zeukana ezin zenez saldu oiloei ematen zitzairen bizi bizirik, gustura jaten zuten".

Dena den, ala denetarako erabiltzen zuten, ez bakarrik arrantzarako: "Soro gehienak Oria bestaldean geneuzkan. Batzuk Usurbil aldera, Aginaga parean, erdian ere bai eta besteak Orio aldera, kilometro bat behera eta beste kilometro bat gora. Gutxi gora behera bost golde artoa eta babarruna egiten genituen. Ia bi hektarea. Hiru golde hektarea bat dira. 3.333,33 metro karratu" jakinarazi zigun Joxe Miel Bereziartuak.

Garai batean gabarrak ere jarri ziren, ibai bestaldera idi pareta eta traktorea pasatzeko moduko ontziak. "Motorrik ez zen eta polainarekin mugitzen ziren. Polaina, arrauna bezalakoa da, bere zuloarekin, baina

pala luzeagoa dauka, metroterdikoa edo. Zenbat eta pala luzeago indar handiagoa behar zen mugitzeko".

Arotz

2000. urtean laga zuen angulen arrantza, baina oraindik jaiotetxean dauka ala, Bereziartuak berak egindakoa. Aitona zuen arotza eta bi osaba ere bai. "Azkena egin nuena urte erdian egin nuen neuk bakarrik asteburuetan lana eginez".


Jubilatutakoan Veneziara joateko asmoa daukala ere kontatu digu: "Ikusi ditut gondola horiek nola ibiltzen dituzten, beste era batera egiten dute indarra, eta indar asko galtzen dute, hemen baino gehiago. Gizaldi eta gizaldietan ibiliko ziren horrela, baina hemengo teknika erakusteko gogoarekin joango naiz".

Arraunlari

Indar handikoak izan dira Bereziartuarrak. Aita eta osabak oso onak ziren arraunean eta polainarekin. Joxe Miel Bereziartuaren aita 38 urtera arte ibili omen zen arraunean, Orio, Donostia eta Zarautzen. Baina berari ez zion aitak, arraunean eta pisuekin ibiltzen utzi, aita hernia diskaleko arazoengatik operatua zegoen eta. "Niretzat ez zuen astakeriarik nahi. Bera bai, arraunlaria izan zen. Lau anaik aita patroiz zutela bateletan estropada denak irabazten zituzten, Aginagan bandera asko daude aitak eta osabek irabazita. Indartsuak ziren, ia bi metrokoak".

"Nire aitari inork ez zion irabazten. Aitak, gure etxetik goiko zubiraino egin zuen apustua Otamendi abizeneko beste aginar baten aurka eta irabazi egin zion noski", hainbat kontu ditu Bereziartuak.

Berak desafioa bota zion behin Joxe Luis Korta ezagunari, baina ez du sekula apustu eta norgehiagokarik egin. "Oriotarrek Katxiña jatetxean ospatzen dute banderak irabazten dituztenean eta urte bukaeran ere han elkartzen dira. 9 urtetan joan nintzen ni larunbatero semeekin



Aginagako Uriberri baserrikoa da Joxe Miel Bereziartua. Etxe aurrean, arrantzan egiteko eta ibaia gurutzatzeko ala ontziak.

“ Aita 38 urtera arte ibili zen arraunean, baina ez zidan pisuak altxatzen eta arraun egiten utzi

eta beste senide batzuekin bertan bazkaltzera eta behin Korta han zen. Beti esaten zuten ez zuela edaten, baina egun hartan kargatuta etorri zen gure mahairra, besterik ez, xanpaina edan omen zuen. Han zebilen harro, "onenak gaituk" esanaz, eta esan


nion: "Beitu Jose Luis, hi arraunean onena izango haiz, baina polainean ez eh, nahi duanean bota milioia (pezeta)" jaurti nion erronka, ausart. "Nahi baduk gure etxetik Orioko zubira eta nahi baduk zubira eta buelta". Buelta erdi eman eta sukaldera

joan omen zen eta han "horren kontra? Jai daukak" esan zioten. "Aspaldi ez naiz jardun baina preparatuta ez al nioke ba horri irabaziko?" galdetzen omen zuen Kortak: "kostako zaik, eorrek ikusi" esan omen zioten. Mahaira etorri eta esan zidan: "Hi Joxe Miel, hiru hilabete ematen al dizkidak preparatuko?" "Nahi baduk hiru hilabete, nahi baduk hiru urte eta nahi den denbora. Ni beti nago preparatuta". Askok ibiltzen nintzen,



Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszub@hotm@il.com





Denetarik egin du Bereziartuak. Ibaian erabiltzen duen ala berak bakarrik eraiki zuen sei hilabetetan asteburuetan lana eginez.

ez neukan preparatu beharrik. "Bueno elkarren berri jakingo diagu" esan zuen baina gaur arte" gustuko du kontu kontari aritzea Bereziartuak.

Indartsua, pultsuan nagusi

Istoriok bata bestearen atzetik kontatzen ditu Bereziartuak: "17 urterekin Sanpraxikutu txapel-duna izan nintzen pultsuan eta geroztik inork ez dit irabazi. Europako txapelduna ere etorri zen, nire lagun bat eta beste enteratu ziren lrun eta Donostiara zetorrela eta lagunak esan zidan: Oraingoan ikusiko diagu, potrorik baldin baduk honi jakatuko diok!". "Galdutako dut, noski, baina ez dut atzera egingo", esan nion. "Irabazteko horrelakoren batek irabazi beharko dit". Galdutu zioten hari enfrontatuko al zen hemen inguruan kontrariorik ez zuen bati eta baietz hark. Normalean ezkerreko eskuarekin adar bati heltzen zioten eta Trintxerpen, Avenida kafetegian ez zen horrelakorik, mahaiari helduta berdin ez ote zen galdetu nion, eta "ui" belgak. Niregatik ez zuen inork xentimorik ematen, baina nire lagunek bazekiten aurreneko zakarraldiari eusten banion nirea zela garaipena, aurrenekoan dezente eraman zidan, baina nik heldu eta heldu, halako batean berriz erdiraino eraman nuen, han ere jotzen zuen, baina nik

aguanta, horrela irabazi ditut eta gehienak. Eta behin ikusten nuen indarrak joaten ari zitzaizkiola, tarteka, ttak aurrera egiten nuen eta ikusi nuenean, orain-txe!, kolpea bota nuen. Zazpi minutu eta 22 segundo izan ziren. Geroztik kontrario asko izan dut, baita sagardotegietan ere. Hau 60 urterekin uztea pentsatuta daukat, meta hori jarrita daukat. Inaki Perurenaren laguna naiz, eta "hi nik galtzekotan hi bezalako batekin galdu behar diat, sona pixka bat duenarekin" esaten diot". Perurenarekin norgehiagoka horrek izatekotan laster izan beharko du 60 urte beteak baititu Mikelek.

Harri-jasotzaile

Inaki Perurena eta biak Aristerrazun, Aiako San Pedron, eza-gutu ziren. Biek zuten harri-jasotzaile izateko ametsa eta ezkutuan aritzen ziren. "Juntatu ginen etxean uzten ez ziguten bi. Baina hura aurrera ateratu zen" "Astakeriak zirela, hortik ez zegoela ezer, gerriak izorratuko nituela,..." esaten zidan aitak eta ni isilka ibili arren aita enteratu eta esan zidan serio: "berriz jaki-

ten badit horretan habilela, atea itxi eta kanpoan geratuko haiz".

Aristerrazun zaletasun handia zegoen eta kirolari asko elkartzen ziren. "Hil berri den Mendizabal aizkolari eta harri-jasotzaileak esan zidan behin harriari asko begiratzen niola eta altxatuko ote nuen. Arropak ekarri zizkidan, baina gerrikoa ez nuen jantzi, "gerriak beti ondo eduki ditut" esan nion eta gerrikorik gabe erraz altxa nuen 12 arrobakoa, 150 kilokoa. Haiek egiten zidaten xaxa".

14-15 urterekin ehun kiloko ongarri zakuak baserriko ganbarara igoak zituen. "Larunbat batean, Luis Atxega harri-jasotzaileak ekarri zituen ehun kiloko ongarri zakuak etxera. Orduantxe uzten ari zen. Aita-rengatik galdetu zuen, baina neuk eramango nituela esan nion. "Bai zera", hark. "Oraindik ume bat haiz hi." "Ume bat izango naiz baina ni ehun kilorekin ibilita nago, Aginagako sozietatearen aurrean, esku zulorik gabeko 100 kiloko harria herriko festetan altxa nuen". Kamioitik bizkarrean jarri eta tipi tapa ganbararaino igo

“ 21 urterekin 75 bat kilo nituela, 250 kiloko bidoiarekin 20 metro inguruko joan-etorria egin nuen

nituen, hirugarren pisura, lau zaku. Hura harrituta. "Nirekin etorri behar duk" esaten zidan, "pentsuak banatu eta harriak jasotzen erakutsiko diat"... baina ni eskolan nenbilen. Nik nahi nuen, baina etxean ez".

250 kilo bizkarrean

Inaki Perurenak kontatzen omen du proportzioan bera baino indartsuagoak badirela eta Bereziartuaren marka bat aipatzen du. "21 urterekin 75 bat kilo izango nituen, eta 250 kiloko bidoiarekin 20ren bat metroko joan-etorria egin nuen. Nire nagusia zen santanderino batek, Castro Urdialesko Antonioekin zuen apustua. Nik sekula ez dut ezer ere jokatu. Ezta pezeta bat ere, ez pultsuan ez beste ezertan. Antoniok esan zidan Azpeitiar batek 200 kiloko bidoia gainean eraman eta berriro bota zuela kamioira. "Hartu eta eraman?" Nik ere egingo nuela esan nion. Proba egin genuen. Olioak lodia izan behar zuela esan nion, balantza ez egiteko. Ustez lodiena hartu genuen, baina ezin, ia erori nintzen bidoi eta guzti. Grasa ez zela mugituko esan nion, bai baina 50 kilo gehiago zituela berak. Probatu eta primeran egin nuen kanporaino eraman eta ekarri. Apustuzalea zen eta bera pozik: handik bi astera, 19 kontrario topatu zituen, guztiekin afaria eta dirua jokatu omen zuen; ostirala zen, errekadistek Grosen Iparragirre kale inguruan izaten genituen kamioiak; orduan ez zen hainbeste trafikorik; Bodegon San Antonion afaldu, Antonio han famosoa zen eta jende asko zegoen; bazekien egingo nuela, baina pausuk egin zituenarekin haserre egon zen, metroa baino gehiagokoak egi-ten zituelako.

Mirakruzera pasoa utzi eta beste kale denak itxita egon

ziren, eta nik kamioitik 250 kiloko bidoia hartu, distantzia markatuz zutik jarri zen pertsonari buelta eman eta berriz kamioira bota nuen; 40 metro, nire pisua bider hiru gehi 25 kilo ziren".

Inaki Perurenak eta bere semeak horrelakorik egitea "inposiblea" dela esaten omen zuten. "Nire pisua hiru bider eta beste 25 kilo? Azpian zapalduko ninduke" esan zion Inaki. Nafarroa aldera joan denean, askotan Perurena delakoan okertu direla esan digu Bereziartuak. Haren semeak hori jakinda zera aitortu omen zuen "hau gure aitonen igual iguala duk".

Hiru partidua egun berean

Indartsua izan da zalantzarik gabe. Hernanin ikasten ari zela, hiru partidua jokatu zituen egun berean, goizean eskubaloian, gero eguerdian pilotan eta arratsaldean futboleko. Hiru "paliza" hartu, eta bizikletan itzuli zen etxera poz pozik pilotako finala jokatu irabazitako 12.500 pezetarekin. "Gero gaurko gazteak paliza bat hartu eta jota daude. Guk beste kasta batekoak ginen, ez ginen nekatzen".

1967. urterako, pilotan txapelketa irabazten zuen bikoteak 40.000 pezeta jasotzen zituen eta bigarrenak 25.000 eta Bereziartuak gogoratzen duenez, bere aitak orduan Michelinen 12 ordu lan eginda 8.000 pezeta irabazten zituen. Eguerdian galdu egin zuten pilotan 22-21 Leonet bere bikoteak eskuan min hartu zuelako, baina 18:00etan Txantxillan futboleko irabazi egin zuten eskolakoek. "Mano a mano ez neukan kontrariorik, egun hartan 19-11 irabazten gindoazela, Leonet-i eskua izorratu eta hantxe galdu genuen. Pilota denak berari botatzen hasi eta 16ra etorri ziren. Beste erremediorik ez zegoela eta bakarrik jokatu behar nuela esan nion "Hik ezkerre zaindu eta nik bien kontra, aurrera eta atzera, ahal dudan guztia egingo dut". Lehenago hasi banintz irabazi egingo genuen: bi tanto egin nituen, 21-21 jarri ginen".•

Pultsuan ez dio oraindik inork irabazi, 14-15 urterekin ehun kiloko zakuak igo zituen ganbarara eta Aristerrazun, gero, 150 kiloko harria erraz altxa zuen

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ELEKTRIZITATEA

ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

SALAZAR PROFESIONAL

Eguberri on!

UNE 175001-1 Komertziorako kalitateko zerbitzuaren zigilua

Gettoki Kalea 15
Tel.: 943 360211
salazar@salazarpro.net
www.salazarpro.net

REVION PROFESSIONAL
ALCANTARA
academie
L'ORÉAL PROFESSIONNEL
WELLA

2010, beste urte bat preso

Abenduaren 24an Lasarte-Oriako preso politikoen aldeko brindisa egingo da, gabon zahar egunean manifestazioa eta urtarilaren 7an olerki, bertso eta ipuinen errezitaldia

Lasarte-Oriako preso politikoen senide eta lagunek hauen poesia, kontakizun eta bertsoen errezitaldia antolatu dute: urtarilaren 7an egingo da 19:30etan Xirimiri elkartearen. Beste urte bete kartzelan eman dutela gogoratu eta salatzeke urte amaierako egun hauetan beste zenbait ekintza ere burutuko dituzte, abenduaren 24an brindisa Okendo kalean 20:00etan eta abenduaren 31n manifestazioa 19:00etan Okendotik abiatuta. Gainera, urtarilaren 8an, Bilbon, 'Egin dezagun urratsa' lelopean egingo den manifestazioan parte hartzeko deia ere luzatu dute.

Jon ALTUNA

Lasarte-Oriako presoek dauzkaten baldintza txarrak salatu dituzte beraien senide eta lagunek: "2010. urtea amaitu eta gure senide eta lagunek espetxean jarraitzen dute. Euskal Herria mendeetan jasaten ari den jazarpen politikoarekin amaitzeko garai berriak ageri dira bazterrik bazter, ordea gure senide eta lagunek espetxe politika basatia pairatzen jarraitzen dute. Herri-rik ehunka kilometrotara, ezarritako zigorra osorik beterik izan arren espainiar presoedegietan bahiturik, bisita ukatuak, espetxeetako funtzionarioen etengabeko jazarpena, senide eta lagunen aurkako etengabeko erabakiak, bakartzeak, presio psikologikoak eta abar luze bat. Aski da! Preso politikoak dira, arazo politiko batek eraman ditu espetxera, hautu politiko bat egiteagatik".

Presoen senide eta lagunen iritziz, garai hauetan giza eskubideak ahoz aho erabiltzen badira ere, "boterean diren politikoz guztiek behin eta berri bortsatzen dituzte giza eskubideak" eta horren zenbait adibide jartzen dituzte: "Gure kaleetan gizon armatuak ugarriak dira, bizkartzainak beha-

rezkoak ote dira?, herriko udal-letxeak "bunker" bat dirudi, poliziek gazteak atxilotzen jarraitzen dute, militarrek Euskal Herrian barrena maniobra militarrek burutzen, estatu terrorismoa praktikatu duten (GAL eta bestelakoak) terroristak guztiak kalean libre, euskal militanten ezkutuko bahiketa eta jarraipenak,... eguneroko ogi bilakatu dira, Jon Antza euskal militantearen desagertzea eta heriotza ez da argitu, aukera politikoen etengabeko ilegalizazioa".

24 urte preso

Euskal Herria eta herritarrak bakean uzteko eskatzen dute eta presoan egoera gogoratu. Senide eta lagunek emandako informazioaren arabera, Ina Orotegi, Kepa Rezabal eta Mitxel Turrientes dira da kartzelan denbora gehiena daramatenak, 24 urte beteko dituzte abenduaren 28an eta bizi osorako kondenarekin dira, Orotegi, A Lamako espetxean, 750 kilometrotara, Turrientes Herrera de la Manchán, 639 kilometrotara eta Rezabal, Monterroxoan, 650 kilometrotara.

Xanti Arrospide eta Niko Franciscok 23 urte daramatzate kartzelan bizi osorako kondenarekin, Arrospide 255 kilometrotara



“Orotegi, Rezabal eta Turrientes-ek daramate kartzelan denbora gehiena. 24 urte beteko dituzte abenduaren 28an

dagoen Zuerako espetxean eta Niko Francisco 639 kilometrotara, Herrera de la Manchán.

Juankar Balerdik 21 urte daramatza preso, Jaengo kartzelan dago 768 kilometrotara bizi osorako kondenarekin eta bere senide eta lagunek salatu dutenez, urtea eta hiru hilabete daramatza "vis a vis" bisitarik izan gabe.

Javi Gallagak 13 urte eman ditu espetxean. Une honetan Cordoban da 850 kilometrotara.

Ibon Etxezarretak 9 urte bete ditu 100 kilometrotara dagoen Arabako Langraitzeko espetxean.

Ibon Fernandez Iradi, Euro aginduekin espainiar espetxetara ekarri dute epaiketak amaitu bitarte eta une honetan

Valdemoron aurkitzen da, 480 kilometrotara. 7 urte daramatza espetxean.

Peio Eskisabelek bost urte daramatza espetxean eta Paris ondoko Fresnesen, 830 kilometrotara. Aitzol Iriondo ere Paris ondoan dago, Bois d'Arcyko kartzelan azken bi urteotan.

Aipatutako azken bi preso hauek Parisen daude preso eta beraz Frantziar estatuko araudiaren menpe daudela salatu dute senide eta lagunek, hau da, presoek ez dute telefono deia egiteko eskubiderik, eguneko 22 ordu ziega barruan sarturik egon behar dute eta ez dute inolako "vis-a-vis" bisitarik.



“ Euskal Herria mendeetan jasaten ari den jazarpen politikoarekin amaitzeko garai berriak ageri dira bazterrik bazter, ordea gure senide eta lagunek espetxe politika basatia pairatzen jarraitzen dute.

“ Kartzelen inkomunikazio nahiak, komunikazio ahalegin bihurtzen dira. Preso dauden herritarren berri heltzen zaigu, modu batera edo bestera. Ahoz aho gehienetan. Bertsoa, kontakizun eta olerkiak heldu zaizkigu. Horiekin osatu dugu partekatu nahi dugun ekimena

Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik

Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik, jasotako hitzak" ekimena antolatu dute Lasarte-Oriako preso senide eta lagunek. Kartzelatik iritsitako bertso, olerki eta kontakizunen errezitaldia eta afaria egingo dira urtarrilaren 7an Xirimiri elkartearen. Afariko txartelak ohiko lekuetan jarriko dira salgai.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "Bakardadea, isolamendua eta urruntasuna urratuko duen bisita, bidaia, eskutitza edo telefono dei ugari izaten da Lasarte-Orian ere. Hala da urte sasoi guztietan. Bero ala hotz. Bidaian joaten den lagun eta senidek ez dio klima, urtaro, herriko festa edo urte amaierako usadioak medio, bisitan joateari uzten. Kartzelatiko antolamendu honen babesle edota bultzatzaileen inkomunikazio nahiak, komunikazio ahalegin bihurtzen dira. Preso

Kartzelatik presoek bidaltako olerki, bertso eta ipuinekin errezitaldia egingo dute urtarrilaren 7an 19:30ean Xirimiri elkartearen.

Hona hemen entzun ahal izango diren olerkietako bat.

JAUZI

Jauzi egin genuen
eta ez zegoen amildegirik
Sortu ginen Bizira
Bigarrenez
Orain zortzi urte
Jauzi egin genuen
eta ez zegoen amildegirik

dauden herritarren berri heltzen zaigu, modu batera edo bestera. Ahoz aho gehienetan. Eskuz esku oraingoan. Nola dauden, nola doakien, zerrekin aurkitzen diren, nola aurre egiten dioten egunerokoari, zein egitasmo dituzten jakin nahi izaten dugu. Bertsoa, kontakizun eta olerkiak heldu zaizkigu. Horiekin osatu dugu partekatu nahi dugun ekimena".

Poesia errezitaldi hau ez da antolatzaileen iritziz bakarra izango. "Ez da saio bakarra izango, jarraipena izango du. Irtsiko dira testu gehiago, aurrerantzean ere izango dugu elkarren berri izateko gogoia, premia eta bideratuko dugu beste olerki saio edo dena delakoa. Beraz, oraingoak bidea zabalduko du: Harresi guztien gainetik, eta sarraila guztien azpitik, jasotako hitzak: Urtarrilaren 7an, 7.30etan Xirimiri elkartearen eta ondoren, afaria".

DENA BERTAN EGINA

**TURROIAK
MAZAPANAK
POLBOROIAK
ERREGETAKO OPILA
BONBOIAK**

...

**Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net**

**Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!**

**PASTELAK
OPIAK
PASTAK
OGIA
BONBOIAK**

...

**PASTELAK
OPIAK
PASTAK
OGIA
BONBOIAK**

...

Babes lekuak eta Lasarte-Oria

Miguel Angel Oribe herritarren *Denboraren Muga* erakusketa 17 urtetan burutu duen lanaren gogoeta sakon eta berrikuspenaren emaitza du.

Bere bizitza profesionalen zehar mugen bilaketa, landu gabeko bideak, ertz ilunak, ezezagunerako bidaia eta ikasketa prozesua aztertzen ibili da, eta oraindik aurkitu beharrekoen bilketa lanean dihardu. Ez da geldirik egoten den horietakoa.

Honen erakusle, astear-tean Manuel Lekuona kultur etxean inauguratu zen Miguel Angel Oribe lasarteoriatarren *Denboraren Muga* erakusketa du.

Umetako lekuak erakarrit

Denboraren muga erakusketa-lanak haurtzaroko babes lekuen oroitzenetik sortu ditu Oribe. Adimenean ezkutuan aurkitzen dauden

babes lekuak dira, hain zuzen ere, eta honela Jaizkibel plaza, Institutu garaikoa urteak, Santa Barbara eginiko irteerak, eta Lasarte-Oria bere bizitza osoan aurkitu dituen babes leku pertsonal ugariak erakusketa honetan ikus daitezke.

Era honetara, babesturik sentitzen garen lekuak, muntatutako dugun guztitik deskonektatzeko topatzen ditugun tokiak eta gure pentsamenduen ertz ilunetatik bidaiatzen dugunean ditugun babes-lekuak dira *Denboraren Muga* erakusketa Oribe erakusten dituenak.

Lasarte-Oria omentzen

Honetaz gain, lan honetan Miguel Angel Oribe bere herria omendu nahi izan du eta horretarako, marrazki eta eskultura serie bat aurkeztu du erakusketa.

Omenaldi honen bidez



Miguel Angel Oribe herriko eskultorearen *Denboraren Muga* erakusketa ikusgai dago Manuel Lekuona kultur etxean.

bere jaioterriak eman dion guztia eskertu nahi izan du artistak. Izan ere, Oriberen hitzetan, herri hau da bere izaeraren sortzailean eragile.

Erakusketa honetan, gainera, bere bizitzari buruz mintzo da Oribe, bai bizitza artistikoaz eta pertsonalagoa

den beste batez.

Erakusketa honetan Oribe mundu artistikoan barneratuta daraman 17 urte hauetan landutakoak ekarri nahi izan dizkigu. Baina gogoraraziz oraindik bide ugari geratzen zaizkiola lantzeko eta arakatzeko.

Data berezi hauek aproposak dira Miguel Angel Oribe bere lanean murgiltzeko eskaintzen duen bidai honetan barneratzeko. Arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara, urtarilaren 14a arte egongo da erakusketa Manuel Lekuona kultur etxean. •



Udal Musika eskolak Eguberri giroa eraman zuen kultur etxera

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako lagunek 2010 urteari amaiera ederra emateko, astelehenean, kontzertu paregabea eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean.

Eguberrietako giro ederra ekarri zuten ikasle eta irakasleek kultur etxeko aretara. Eskolako txikiak kantuan, musika tresna desberdinen

doinuak, abesbatza eta talde desberdinek prestatutako abestiak entzun ahal izan ziren, besteak beste, *Gabeko Izar*, *Din Dan Don*, *Alaken edo Olentzero*.

Kontzertu honi esker Gabonetako alaitasuna eta izpiritua ekarri zuten Lasarte-Oriara. Eta gainera, ikasitakoak erakutsi zituzten. •

Musiké Tekne-ren kontzertu ederra

Harizko instrumentuen hotsez bete zen Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa atzo arratsaldean. Musiké Tekne laukoteak "Musika klasikotik herri-musikara" kontzertu polita eskaini zuten.

Izaskun Etxebeste eta Tomas Ruti herritarra biolinak, Maider Lopez biola eta Nuria Nieto txeloa Euskadiko Orkestra Gaztean ezagutu zuten elkar, eta urte batzuk geroago, musikaren munduko ezagutzetan sakondu ostean, atzo arratsaldean kultur etxean ikusi ahal izan genuen taldea sortu zuten.

Hari laukoteak Mozart eta Haydn musikagile klasikoekin doinuetaik pop, rock eta tango doinuetairako errepaso azkarra egin zuten.

Musikari hauek musika maitatzeaz gain, musikaz bizi



Hari laukoteak musika estilo desberdinetako lanak eskaini zituen kontzertuan.

dira. Musika dute gogoko eta hori ederki nabaritu zen eskaini zuten kontzertuan. Pasioa eta indarra jarri zituzten prestatu zituzten musika pieza guztietan.

Laukoteak duen kalitate musikala ondo baina hobeto erakutsi zuten herriko kultur etxean Kutxa Fundazioak antolatutako ikuskizun musikalen. •

LIBRERIA MAITE

Eguberri on!

Geltoki 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372791

Altuna **Valentine** **MARKA HORIEN BANATZAILE OFIZIALA**

DEKORAZIOA

Erakusketa
Kale Nagusia 4 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362157
Faxa: 943 366157

Biltegia
Errekalde pol. 33 • DONOSTIA (Lehenago Bianchi)
Tel.: 943 364403

Ono igaro gabon jaietan!

LIZARRI OPTIKA

Hipodromo etorbidea 8 (Anbulatoriaren aurrean)
Tel.: 943 366482
LASARTE-ORIA

Eguberri on!

SANPI-GAS

Gas-instalazioak, berokuntza eta iturgintza

Ordutegia
09:00 - 13:00
16:00 - 20:00

Izan Eguberri zoriontsuak!

Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165
LASARTE-ORIA



75
URTEURRENA
1935-2010



ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriaillarreta@yahoo.es



ILLARRETA
ITURBIDINTZA

EGUBERRI ON!



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL • illarreta@yahoo.es



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Fruituen eta barazkien Donostiako merkatu zentrala



*Eguberri
on!*



Tel.: 943 376 402
Faxa: 943 376 172



MERKA
BUGATI



www.merkabugati.com

Arrapide etorbidea 75
20160 ZUBIETA - DONOSTIA





Amalur taldeko txistulariek erdialdeko kaleak haien doinuez girotu zituzten.



Bitartean, Amalur taldeko trikiti eta panderoek Sagardotegiko kaleko jendea dantzan jarri zuten.



Xumela Koruko lagunek doinu herrikoiak eta gaban kantak eskaini zituzten eta ikusleak kantuan jarri zituzten.



Patxi Etxeberria eta Zigor Iriondo bertsolariak ere festa giroan murgildu ziren.



Herriko txistulariek eta Erketzeko lagunek erromeri polita antolatu zuten.





DAKARA

Eguberri on!

JATETXEA

Ez geratu ostegunetako gure nazioarteko afariak probatu gabe !!

Eguneko menua asteartetik ostiralera

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859

**Eta orain...
eskatu
eta
eramango dizugu !**

Especialitatea hostopiletan

Erraxioak

Entsaladak

Ogitartekoak





Arratsalde osoan zehar, nabarmen izan zen, herriko haur, zein gaztetxoak Telleri baserriko txerria ikusuteko irrikari zeudela.



Arratsalde osoa, lan eta lan egon ziren talogileak. Herritarren eskaera asetzeko ehundaka talo egin zituzten.

San Tomas ferian giro ederra egon zen

Euriari aurre eginez, herritar ugari bildu zen astearte arratsaldean Sagardotegi kalean Ttakun K.E.-k antolatu zuen azokan

Eguraldiak hasieran mehatxu egin bazuen ere, azkenean behintzat ateri egon zen astearte arratsaldean eta San Tomas eguneko jaia gure herrian ederki ospatzeko aukera egon zen.

Urtero bezala, Ttakun elkarteak hainbat postu eta ekitaldi antolatu zituen Sagardotegi kalean eguna ospatzeko.

Txerria eta talo tailerra

Telleri baserriko lagunen txerria izan zen, beti bezala, haurrentzako entretenimendu ederra. Baina aurtengainera etxeko txikiak taloak egiteko

aukera izan zuten. Era honek, gaztetxo eta haur ugari eskuak irinez zikindu ostean, beraiek egindako taloa jan zuten.

Musika eta bertsoak

Haurrez gain, arratsalde osoan zehar, helduek taloak eta gaztainak jateko aukera izan zuten, baita sagardoa dastatzeko ere.

Iluntze aldera, giro onean, Amalur taldekoen trikiti eta pandero doinuek dantzan jarri zituzten ikusleak.

Eta jarraian, Xumela koruko lagunek kantuan jarri zituzten guztiak.

Zigor Iriondo eta Patxi Etxeberria bertsolarien saioa ere entzun zen Sagardotegi kalean. Bertaratukoei ongi-etorria eman eta jai egun honetan, Lasarte-Oria eta Donostian egon zitekeen giroari buruzko bertsoak eskaini zituzten.

San Tomas azokari amaiera emateko, Erketz D.T. eta herriko txistulariek erromeri polita antolatu zuten. Eta hainbat herritar, heldu eta gazteak, animatu ziren doinuen erritmora oinak astintzera.

Azken orduan euriak bere agerraldia egin zuen berriro ere, baina jaia amaitzear zegoenez, gaitzerdi. •




Talogileen antzera, herriko haur eta gaztetxoek taloak egin eta gero, jan zituzten.

Jalgune Elkartea



Bekokale bidea | 2. solairua • LASARTE-ORIA



Jalguneko lagunek eguberriraj zoriontsuak opa dizkizuegu!




Ondo igaro Gabon jaiak !

- EGUNEKO MENUA
- ASTEBURUETAKO MENUA
- TRADIZIOZKO SUKALDARITZA
- ETXEKO POSTREAK



Larre

Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361012 / 943 360480



Maite Erkizia

Eguberri on!

**ILE-APAINDEGIA
ESTETIKA**

Bias de Lezo 5, behe
Tel.: 943 370254
LASARTE-ORIA

BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pateia

Odolkia- Solomo ontzutua

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451 • Lasarte-Oria

MAIDER Taberna-Jatetxea

Ondo pasa Gabon jaietan !

- Asteburuko menu bereziak
- Eguneako menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak



Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA



ISU

Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu !

- POLIURETANOAK
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA

- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA



Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxes: 943 365222

Fernández
e h u n a k

Eguberri on!

Nahi edo
behar duzun
huraxe
aurkituko
duzu gurean!



Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

Riojanos
Erreategia



Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720
LASARTE-ORIA

Izan Eguberri zoriontsuak !

DANI karrozeria

EGUBERRI ON !

Trebeak gara
kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuak garbiketa




Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@lditel.com

MANOLI
estankoa

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu lagunarte ederrean !

Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA



AIZPURUA
Pinturak

- * Pintura plastikoak bereziki.
- * Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Ondo pasa Gabon jaietan !

Zumaburuko industrialdea
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362153



Euskaraz ondo pasatzeko aukera

Produktu zabalen eskaintza www.katalogoa.org web helbidean aurkitu daiteke

Gabonekin batera opariak erosteko tartea iristen da. Askotan ez dakigu zer oparitu. Eskaintza zabala eta ezin erabaki. Guzti hau aldatzeko eta erraztasunak emateko aukera ederra luzatu ziguten www.katalogoa.org web orrialdea sortu zutenean. Bertan euskarazko produktuen katalogo zabala eta adinka antolatuta luzatzen zaigu. Euskara ez da soilik hezkuntzarekin lotu behar, ondo pasatzeko aukera ere bada eta hori ongi islatzen da orrialde honetan aurkitu ditzakegun produktu zabal eta anitzei erreparaturaz.

Jostailu, jolas, liburuen merkatua gero eta zabalagoa da, zer oparitu? Zer eskatu? Gero eta zailagoa da! Euskarazko produktuak ere bere lekua aurkitu dute merkatu zabal eta konpetitibo honetan. Aisialdira, hezkuntzara bideratutako jolasak, aurtun ere euskaraz lortzeko aukera dugu Euskarazko produktuen katalogoari esker. Bertan musika, DVD-Filmak, informatika, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako material aurkitu dezakegu.

IBILBIDEA

Duela 13 urte, Nafarroako udal gutxi batzuek eman zioten hasiera Euskarazko produktuen Katalogoaren ekimenari. Harez geroztik, asko hazi da, eta momentuan, 135 toki-entitate, 200 udal-entitate gora osatzen dute.

Honela, katalogoa bultza-

tzen duten udalerriek bat egin eta Euskal Herrian XIII. edizioa argitaratu dute aurtun.

Eskaintza zabala

Filmak, jostailuak eta jokoak, musika, komikiak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala, informatika...

"Euskarazko produktuak erdararen itasoa nabarmendu behar dira, eta egon bada- goen hori erdarazko produktuen itzaletik argitara ekarri," adierazten dute katalogoaren arduradunek beraien web orrialdean.

Paperezko katalogoaz gain, argitaletxeek eskaintzen dituzten produktu guztien erreferentziak www.katalogoa.org web gunean bisitatu daiteke. Bertan, produktuaren edo adinaren arabera banaturik aurkitu ditzakegu eta produktuen

prezioa eta ezaugarri gehiago ere ezagutu daitezke. Azken finean, ekimenaren arduradunek katalogo hau gurasoentzako lagungarri eta erraza gertatzea dute helburu.

Produktu ugari eta anitzak daude Euskarazko produktuen katalogoan. Beraz, katalogoko oparirik ez egiteko aitzakiarik ez dago. Hezi euskaraz eta gozatu euskaraz!

Nobedadeak

Haur eta gazteentzako euskarazko produktuen informazioa eta nobedadeak www.katalogoa.org web orrialdean eguneratuak agertzen dira. Urtean zehar ateratzen diren nobedadeak jakinarazten dituzte, gainera hauek ateratzen direnean nahi izanez gero zure e-mail-ean jasotzeko aukera luzatzen dizute.

Web orrialdean sartu eta nobedadeak ikusten dira lehenengo. Guk horietako batzuk aukeratu ditugu.

Zer gara gu, nor gara gu:

Euskal Herriko kulturari buruz oinarritzko gaiak ezagutzeko pentsatuta dagoen joko da. Galderen erantzun okerrak astakeriak edo barregarriak dira, erantzun zuzena



aukeratzeko zalantzarik ez dago beraz. Etxean zein kalean jolasteko aukera eskaintzen du. 05-09 urte bitarteko umeentzako gomendatua.

Gau hotzenean ere:



hotzenean ere lan berri eta berezi honen kikin

hausten du Hernaniko kantari-musikariak zortzi urteko isil-lunea. Lan honen bidez Olatz Zugastik bere barne-mundu emankorra eta fantastikoa ez ezik, folklore esentzialaren bestelako ikuspegia ekartzen baitu. Maisutasun handia erakusten du harpari sentikortasunez beteriko melodiak ateratzen, norberaren barruan bizi diren doinu eta tinbre iraunkor eta aske horiek azalera ekartzen. Helduentzako produktua.

Zzzzz. Loaren liburua: Zeru iluntzen denean, eta

ilargia dizdizka hasten, lotara doaz guztiak... hontz zelataria izan ezik! Loari buruzko liburu hau altxor bihurtuko da zure eskuen artean, zure begirada gozatuko du, eta lotarako pozibide izango duzu. 00-04 urte bitarteko umeentzat.

Hartz zuria: Ezagutu hartz zurien bizilekua Ipar Poloan eta ikusi nola egien duten igeri, nola ehizatzen duten eta nola jolasten duten. 05-09 bitarteko haurrentzat.

Neska haur-jalearen bazkaria: Neska haur-jaleak arazo bat badu: harrapatu duen mutikoa ez da bere bel-dur... umore eta maitasun anitz. 05-09 bitartekoentzat.

Online jokoak

Internet-en umeak jolasean aritzeko joko anitz daude, eta hauek euskaraz ere aurkitu ditzakegu. Guzti honen informazioa eta dagokion web orrialdea www.katalogoa.org helbidean zehazturik eta zerrendatuta aurkitzen da. Bizi euskaraz, jolatu euskaraz! •





**Mokadu goxoen
txokoa duzue gurea!**

PESCANORTE S.A.

**EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

**LEIZOTZ poligonoa, D partzela
Andoain-Urnieta errepidean
ANDOAIN (Gipuzkoa)**
Tel.: 943 304300
Faxa: 943 304218
e-maila: pescanorte@euskalnet.net

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK	*BIZITZA ETA ERRETIROAK	*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
MOTOZIKLETAK	*OSASUNA	*INBERTSIOAK
AUTOMOBILAK	*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK	*PYMEAK...
AUTOKARABANAK		
FURGONETAK		
KAMIOIAK...		
*MERKATARITZA	*ERANTZUKIZUN ZIBILA	

Ganbo Kalea 1 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxe: 943 372413

Ondo pasa Gabon jaietan!



Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxe: 943 372413



Egunero

Haur parkea

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA abenduaren 22tik abenduaren 31ra Michelingo Udal Kiroldegian. Haurrek sarrera doan izango dute eta helduen euro bat. Orduetgia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da, bi txandatan; lehenengo txanda 11:00-12:30 eta 17:00-18:30, eta bigarren txanda 12:30-14:00 eta 18:30-20:00.

23an 19:00etan: haurrentzako berbena, *Txanogorritxu rock*.

24an: Olentzerori eskutitza eta Gabonetako postalak (goizez) 22an, 23an eta 24an Olentzerok parkera bisita egingo du.

28an 10:00-12:30: Uretako festa udal igerilekuan.

19:00etan haurrentzako magia, *Magic show*

30ean 19:00etan: Pailazoak *Txintxo* eta *Txintxeta*.

19:00etan haurrentzako berbena, *Mugi-mugi Disko festa*.

31n 11:00-13:00: Skate, roller, bike... Skate parkean.

12:00etan Urte amaierako *kotilioa*



Egunero

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, *Jasone Iri-goien*en margo erakusketa hilaren amaiera arte. Jalgi kafe-antzokian egun osoan zehar.

Erakusketa

ESKULANEN ERAKUSKETA dago ikusgai. Ikasturte hasieratik egin dituzten ikastaroetan eginitako dira. Emakumeen Zentro Zibikoan, egun osoan.

Erakusketa

DENBORAREN MUGETAN, *Migel Angel Oriberen* erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Asteazkena, 22

Jaiotza ikusgai

JAIOITZA ERRALDOIA ikusgai dago urtarilaren 6ra arte egunero 17:30etik 19:30era. Igande eta jai-egunetan goizez ere bai 11:30etik 13:30era. Aurretik gainera 2 zm.ko *misterio txiki bat* jarri dute, ea topatzen duzuen! Danok Kide Elkarte ekoiztzailea, 17:30etik 19:30era.

Osteguna, 23

Ekitaldia

PELIKULA BAT GRABATUKO dute LH5-LH6ko gaztetxoek abenduaren 23, 27, 28, 29 eta 30ean. Kuadrillategiko lokalean (Erribera kalea), 11:00etatik 13:00etara. EUSKARAZ.

Txapelketa

PETANKA txapelketa egingo dute Atsobakar egoitzan 16:00etatik aurrera, bertakoekin eta beraien familiekin.

Ostirala, 24

Kantaldia

ZABALETA AUZOKO kideek Olentzerori ongi etorria emateko kantari arituko dira auzoan. Zabaleta auzoan, 10:00etan.

Banaketa

OGI-BERRI OKINDEGIKOEK garai bateko furgoneta bat apainduko dute eta *madalenak banatuko* dizkiete haurrei. Pablo Mutiozabal kalean 10:30etik 13:00etara.

Kantaldia

NAXIMENTUAREN LAGUNAK kantari arituko dira Gabon Gaueko goiz osoan zehar, eta

ateratako dirua Nikaraguara bideratuko dute. Herriko kaleetan zehar, 10:30ean.

Ekitaldia

ARIKETA interaktiboa, "BESARKATZE-TERAPIA" egingo dute. Atsobakar zaharren egoitzan, 11:00etan.

Kantaldia

ERKETZ DANTZA TALDEA Olentzerori ongi etorria emateko kantari arituko da herriko kaleetan eta inguruko base-rietara ere hurbilduko dira. Herriko kaleetan zehar, 14:30ean.

Kantaldia

ALBOKA ABESBATZA Atsobakar auzotik aterako da eta herriko kaleetan Gabon kantak abes-tek arituko da. Herriko kaleetan zehar, 17:00etatik aurrera.

Kantaldia

Hainbat ekintza egingo dituzte Gabon Gau eguna ospatzeko Atsobakar egoitzan: GABON KANTAK, JAIOITZA BIZIDUNA, EGUBERRITAKO POSTALAK EMATEA... Eta 20:00etan Gabon-Gaueko afari bikaina. Atsobakar zaharren egoitzan, arratsalde osoan.



HARATEGIA

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 361885
Lasarte-Oria



Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912
Lasarte-Oria



Igandea, 26

Ekitaldia

SEMBLANTE ANDALUZ taldearen emanaldia Atsotak zaharren egoitzan, 17:30ean.

Astelehena, 27

Kantaldia

BIYAK BAT elkarteko ABESBATZA taldearen erakustaldia. Atsotak zaharren egoitzan, 17:30ean.

Astearte, 28

Erakustaldia

BIYAK BAT elkarteko SOINKETA taldearen erakustaldia. Atsotak zaharren egoitzan, 17:30ean.

Igandea, 2

Sari banaketa

XVIII. JAIOTZEN LEHIAKETAKO sari banaketa. Danok Kide elkarteko egoitzan, 12:00etan.

Astelehena, 3

Haur parkea

BECEKO EGUBERRIETAKO HAUR PARKERA IRTEERA egingo dute LH3, LH4, LH5 eta LH6ko gaztetxoek. Izena emateko azken eguna abenduaren 30a da. Informazio gehiagorako pasa Ttakunetik.

Ekitaldia

Emakumeen Zentro Zibikoko BATUKA EKITALDIA. Atsotak zaharren egoitzan, 17:30ean.

Asteazkena, 5

Ekitaldia

ERREGEEI HARRERA eta opari banaketa Atsotak zaharren egoitzan, 11:00etan.


Kabalgata

ERREGREEN KABALGATA Oriatik abiatuko da 18:00etan eta Andatza plazan amaituko da. Bertan erregeei gutuna emateko aukera egongo da.

Ostirala, 7

Irteera

ASTEBURU PASA egingo dute Zuloaga Txikira Amaraun Klubeko lagunek. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 4a da. Informazio gehiago Ttakunen.



Danok Kide elkarteen lokaleko jaiotza

JAIOTZA ERRALDOIA ikusgai dago urtarrilaren 6ra arte egunero 17:30etik 19:30era. Igande eta jai-egunetan goizez ere bai 11:30etik 13:30era.

Aurten gainera 2 zm.ko *misterio txiki bat* jarri dute. Ea topatzen duzuen! Danok Kide Elkarteko egoitzan ikus daiteke jaiotza egunero 17:30etik 19:30era bitartean.



Oriako Karmengo Amaren kaperako jaiotza

ORIAKO JAIOTZA ikusgai dago igandero 10:30etik 12:00etara. Bertan ikus daitekeen jaiotzako hainbat irudik mugimendua dute eta Oriako kaperan beti egon den jaiotza da, nahiz eta piezaren bat berria gehitu, funtsean betikoa da.

Osteguna, 24

Jaialdia

OLENTZERORI ONGI-ETORRIA emateko jaialdia.

17:00etan Andatza plazan jaialdia egingo da Olenzerori merezi duen ongi-etorria emateko. **Amalur** eskolako lagunek emango diote jaialdiari hasiera. Gero **Jalguneko** lagunek prestatutakoa ikusteko aukera izango da. Jarraian **Porrotx, Pupu eta Lore** etorriko dira! Pupuk eta Lorek Olenzero ezagutuko dute! **Amaraun** ludotekako haurrak ere bertan izango dira.

17:45ak aldera Olenzero Lasarte-Oriako haurren eskutitzak eta muxuak jasoko ditu.

Herriko haurrek Olenzerori eginiko marrazkiak ikusgai egongo dira. EUSKARAZ



ETXEZARRETA HARATEGIA



Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA



- Beroaren isolazioa txapan, aluminioan...
- Sabaiko eta makinaren geletako intsonorizazioa
- Airearen kanalizazioa txapan eta climaverrean
- PLADURREZKO tabikeak
- Tabernetako intsonorizazioa

AINORSA

Eguberri on!



Oria etorbidea 8-10, 41 pabiloia
Tel.: 943 366279 • Faxa: 943 372717
LASARTE-ORIA



Zorion-agurrak



Felix
Zorionak eta oso ondo pasa famili guztiaren partetik.



Alejandro
Zorionak Felix eta Paki zure lagun partetik.



Alazne
Zorionak printzesa! Muxu handi bat zuren I. urteurrenean. Garazi, osaba Jesus eta amoi.



Nora
Zorionak guraso eta aiton-amonan partetik. Marrubizko bi muxu.



Endika
Zorionak zure urtebetetzean! Zortzi muxu handi, bereziki aita, ama eta Julen partetik.



Oier
Zorionak eta bost muxu handi etxeko guztion partetik!! Segi horrela txapeldun!!



Ganix
Ongi etorri TXIKI familia guztiaren partetik



Zuriñe
Zorionak prezioxa! Muxu asko familiaren partetik zure 4. urtebetetzean.



Leire
Zorionak!! Lagunen eta bikotearen partetik. Zure egunean ondo igaro! Muxuk



Eneritz
Zorionak guapisima! Berandu baina seguru! 10 muxu handi!



Arkaitz
Zorionak guraso eta osaba Rafaren partetik. Ondo pasa 10. urtebetetzean.



Ibone
Zorionak eta urte askotarako. Txokomarrubizko...muxu pottolo. Ondo pasa



Amaia
Zorionak etxeko partetik!!!



Nerea
Zorionak politta zure I. urtea betetzean. Muxuak aiatxo, amatxo eta Eneritzen partetik.



Pili
Zorionak amonaxo. Oso ondo pasa, bazkaria zure kontu! 71 muxu gure partetik.



Ibai eta Maialen
Zorionak bikote!!! Txokolatezko muxuak familiaren partetik.



Gorka eta Unai
Zorionak bikote! Aitona Alfredo eta amona Pepiren partez! Txokomarrubizko muxu goxoak!

Oharrak

Odol ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan abenduaren 27an arratsaldeko 18:30etik 20:00era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Landaberriko jaialdiko sariak

Larunbatean, abenduaren 18an Landaberri ikastolako jaialdian zozketatutako sarien zenbakiak honakoak dira: 1. Saria: 1.378; 2. Saria: 470; 3. Saioa: 1.791. Saria jasotzeko epea hilabetekoa da. Saria jasotzeko ikastolatik pasa.

Erregeen kabalkadako zuzi eramaleak

Erregeen kabalkadarako tortxero edo zuziak eramateko pertsonak behar dira. Interesa dutenek izena emateko Danok Kideko lokaletik pasa behar dira (jaiotza dagoen lokaletik), MEGABA elkarteak bazkideek 22tik 24ra dute izena emateko eta bazkide ez direnak 25etik 29ra bitartean pasa behar dira lokaletik. Abenduaren 30ean bilera egingo da izena eman dutenekin.

Beltzak-Ostadarren saskia

Beltzak-Ostadar Errugby taldeak zozketatzen zuen saskia badu irabazlea, 9.100 zenbakia da.

Kukukaren egutegia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren egutegiak salgai daude 5 euroren truke Orbela belardendian, Urruzola mertzerian, Basaundiko Denda-Berrin eta Jalgin.

Ostadarren bazkide kanpaina

Kirol fundazioak bazkide ez direnei kirol elkarteak kide izateko deia egiten die, 2011. urteko bazkideen kanpaina eginaz. Abenduaren 23a arte egongo da zabalik eta bazkide egitea Ostadarren egoitzan, Gelto-ki kalea 25, egingo da arratsaldeko, 16:00ak eta 20:00ak bitartean.

Zuzenketa

Abenduaren 17ko aldizkarian, 5. orrialdea argitaratu genuen Espetxe pastoralari buruzko albistean, hau San Pedro Elizako taldea zela aipatzen zen, baina ez da horrela. Espetxe pastoralako taldeak herriko bi parroketan, San Pedro parrokian eta Arantzazuko Amaren parrokian, egiten du lan.

Kultur Elkarteak

Ttakun



Ttakuneko kide guztien partetik

EGUBERRI ETA URTEBERRI ON GUZTIOI!



Lasarte-Oriako Udalak Eguberri eta Urteberri on opa dizue!



Maite

B ETELU



Izan Eguberri zoriontsuak!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria**
zerbitzuak
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen**
administrazioa

Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46



Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11



Egin zure eskaria eta guk prestatuko dugu!

Eguberri on !

HARATEGIA



URDAITEGIA



Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585



IZARRA BITXITEGIA



Gabon, zoriontsuak opa dizkizuegu
lagunarte ederrean!

www.izarrabitxitegia.com



Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

